



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 11

63. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-26/CCOI-00004. “Iruñeko emisio gutxiko eremua (2022-2025)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/CCOI-00004. “Iruñeko emisio gutxiko eremua (2022-2025)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Iruñeko emisio gutxiko eremua (2022-2025)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erre-

gelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

| | ORRIALDEA |
|---|-----------|
| LABURDUREN ETA SIGLEN AURKIBIDEA..... | 4 |
| I. SARRERA | 5 |
| II. EMISIO GUTXIKO EREMUAK..... | 5 |
| II.1 Emisio gutxiko eremuak..... | 5 |
| II.2 Airearen kalitatea eta zarata mailak Iruñean..... | 6 |
| II.3 Emisio gutxiko eremuak, mugikortasun jasangarria eta klima-aldaketa..... | 6 |
| II.4 Emisio gutxiko eremuen kostuak..... | 7 |
| II.5 EGEen nahitaezkotasuna eta ezarpena..... | 7 |
| III. HELBURUAK ETA IRISMENA..... | 9 |
| IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO GARRANTZITSUENAK..... | 12 |
| IV.1 Ondorioak | 12 |
| IV.2 Gomendio garrantzitsuenak..... | 13 |
| V. IRUÑEKO UDALAREN ARDURA | 14 |
| VI. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ARDURA..... | 14 |
| I. GEHIGARRIA. ARAU ESPARRUA..... | 15 |
| II. GEHIGARRIA. OHARPENAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZAK | 17 |
| II.1 helburua: Iruñean ba al dago 2025ean EGE bat gutxienez ere, araudiak ezarritakoari jarraituz? ... | 17 |
| II.2 helburua: egokiak al dira EGE proiektua, horren ezarpen prozedura eta haren efektuen segimendua egiteko bideak?..... | 18 |
| II.3 helburua: Zer baliabide paratu dira EGEa diseinatu, ezarri eta mantentzeko?..... | 30 |
| 1. ERANSKINA: AIREAREN KALITATEA IRUÑERRIAN | 35 |
| 2. ERANSKINA: IRUÑEKO ZARATA MAPAK | 37 |
| BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK..... | 40 |
| KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOAK DIRELA-ETA..... | 41 |

LABURDUREN ETA SIGLEN AURKIBIDEA

| | |
|------------------|---|
| dBA | Dezibelio haztatuak. |
| KAL | 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoa. |
| L _{den} | Egun-arrats-gaueko zarataren indizea. |
| KAFL | 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoa. |
| L _n | Epe luzeko hots maila haztatua, urte bateko gaualdi guztietan zehar (23:00etatik 07:00ak arte) kausitua. |
| OME | Osasunaren Mundu Erakundea. |
| EGEPT | Emisio gutxiko eremurako proiektu teknikoa, Iruñeko udaleko tokiko gobernu-batzarrak 2025ean onetsia. |
| EGEED | 1052/2022 Errege Dekretua, EGEak arautzen dituena. |
| SKE | Sarbide kontrolatuko eremua, Iruñeko Alde Zaharrerako sarbideei buruzko 2022ko araudia aplikatzen zaiona. |
| EGE | Emisio Gutxiko Eremua. |
| EGE-SKE | Emisio gutxiko eremua eta sarbide kontrolatuko eremua, 2023ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 28ra bitartean indarrean izan den Iruñeko Alde Zaharrerako sarbideei buruzko araudia aplikatzen zaiona. |

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeari, abenduaren 20koari, eta 2025erako bere jarduketa programari jarraikiz, fiskalizatu egin du emisio gutxiko eremua (aurrerantzean EGE deituko dena) Iruñean ezartzeari dagokiona.

Lan hori elkarlanean egin da Kontuen Auzitegiarekin eta autonomia erkidegoen kanpo kontroleko organoekin batera.

Landa lana 2025eko urritik abendura bitartean egin du lantalde batek, auditoretzako teknikari bat eta auditore bat kideztat zituela, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboengandik laguntza jasoz.

Lan horren emaitzak jakinarazi zitzaizkion Joseba Asirón Sáez Iruñeko jadaneko alkateari, bai eta Enrique Maya Miranda eta Cristina Ibarrola Guilléni ere, haiek ere alkate izan baitziren gure fiskalizazioak jomuga izan duen aldian, alegazioak aurkeztu ahal izan zituzaten, 19/1984 Foru Legeak, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzkoak, 11.2 artikuluan xedatzen duenari jarraikiz.

Epea amaiturik, alegazio bat aurkeztu du Iruñeko Udaleko gerenteak. Alegazio hori txostenean txertatu da, Ganbera honek emandako erantzunarekin batera.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimoak ager ez daitezten. Emaniko datuek eta ehunekoek balio zehatz bakoitzaren biribiltzea adierazten dute beti, eta ez datu biribilduen batura.

Eskerrak ematen dizkiegu Foru Komunitateko administrazioaren Landa garapeneko eta ingurumeneko departamentuko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. EMISIO GUTXIKO EREMUAK

II.1 EMISIO GUTXIKO EREMUAK

7/2021 Legeak, maiatzaren 20koak, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoak (aurrerantzean, KAL), xedatzen duenaren arabera, EGE bat da "administrazio publiko batek bere eskumenak baliatuz bere lurraldearen barranean zedarrituriko esparru jarraitu bat, non ibilgailuen sarrerari, zirkulazioari eta aparkatzeari murriztapenak aplikatzen baitzaizkio, airearen kalitatea hobetzeko eta berotegi efektuko gasen emisioak apaltzeko, emisio mailaren arabera ibilgailu sailkapenari heldurik, indarreko Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrek ezartzen duenaren arabera".

EGEek honako helburu hauen lorpenari laguntzen diote:

- Aire kalitatearen hobekuntza eta zarataren murrizketa; eta, haien eskutik, biztanleriaren osasunaren eta ingurumenaren hobekuntza.

- Klima-aldaketa samurtzea eta hartarako moldatzea; izan ere, garraiobide jasangarriagoetara iragaten laguntzen dute, berotegi efektuko gasen emisio apalagoekin, eta klima-aldaketari egokitzeko hirigintza esku-hartzeak egitea errazten dute.

EGEez gain, badaude administrazio publikoen –batez ere, toki entitateen– bestelako jarduketa batzuk ere, helburu horietarako lagungarri izaten ahal direnak. Horri buruz, azpimarratu beharrekoa da honako plangintza-tresna hauen garrantzia: hiri mugikortasun jasangarriko planak, zaratarako ekintza planak eta klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza planak. Halaber, lurralde antolamenduko edo hirigintzako zenbait jarduketa. Horrenbestez, EGEak ulertu behar dira aipatu helburuetarako lagungarri izaten ahal diren jarduketaren multzoko osagai gisa.

II.2 AIREAREN KALITATEA ETA ZARATA MAILAK IRUÑEAN

Airearen kalitatea

Nafarroako Airearen Kalitatea Zaintzeko Sareak 2020-2022 epeari buruz dituen datuen analititik abiatutik, Iruñeko EGERako proiektu teknikoak¹ (aurrerantzean, EGEPT) ondorioztatzen du ezen, “oro har, Iruñeko hiri airearen kalitate orokorra ontzat jotzekoa da, lege estandarrei gagozkiela, baina nabarmenki hobegarriztat, kontuan hartuz gero Osasunaren Mundu Erakundearen (aurrerantzean, OME) gidalerroak eta Europako Batzordeak egina duen muga balio berrien proposamena; batez ere, trafikoaren eragin handiena pairatzen duten bideei dagokienez, non oraindik ere arazoak baitaude NO₂rekin eta PM₁₀ eta PM_{2.5} partikulekin”. Orobat ohartarazten du ezen “hiriko airearen kalitateari erasateko potentzialik handieneko eragilea hiri eta metropoli mailetako motorrezko trafikoa” dela.

Txosten honen I. eranskinak taula bat jasotzen du, non 2023 eta 2024ko datuak biltzen baitira, OMEk definituriko erreferentzia-balioekin eta Europar Batasuneko zuzentarauek eta Espainiako araudiak ezarritako helburu balioekin eta muga balioekin konparatuta.

Zarata mailak

Zarata dagokionez, badaude OMEren gomendioak, bai eta Europako nahiz Espainiako arauak ere, eremu jakin batean (bizitokiak, industria eta abar) nagusi den lurzoru erabileraren eta eguneko orduaren arabera gehieneko zarata mailak eta helburuak ezartzen dituztenak. Administrazioek zarata mapak egiten dituzte, kutsadura akustikoa neurtzeko eta neurri zuzentzaileak hartzeko.

Iruñerriaren zarata mapa estrategikorik berriena 2022an egin zen, eta haren eskutik onetsi ziren zaratarako 2025-2029 ekintza-planak².

Dokumentu horien arabera, Iruñerriaren azaleraren ehuneko bederatzian (haren populazioaren ehuneko 14 bilbatzen duenean), gairitu egiten dituzte zarata indizeek kalitate akustikoko helburuak, gaueko orduetan bederen, eta horren zergati nagusia gurgildun ibilgailuen trafikoa sorturiko zarata da. Zona horiek txosten honen 2. eranskinean jasotako mapetan agertzen dira identifikatuta. Zarata mailarik altuenak ingurubideetan eta Iruñeko Nafarroa etorbidean eta Nafarroa Behereko etorbidean jasotakoak dira.

II.3 EMISIO GUTXIKO EREMUAK, MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA KLIMA-ALDAKETA

Klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioan hartutako konpromisoetatik abiatuz, zeina 2015ean sinatu baitzen planetaren tenperaturaren gorakada ekiditeko, bai Europar Batasunak bai Espainiak arau-eta plangintza-esparru joria sortu dute, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuz klima-aldaketa samurtzeko eta aipatu klima-aldaketara egokitzeko. Ildo horretan, aipagarriak dira Europako Itun Berdea, Europako Batzordeak 2019an onetsia, eta Espainiako Energia eta Klimaren Esparru Estrategikoa.

Estimazioen arabera, hiri-garraioa da Europar Batasuneko berotegi efektuko gasen emisioen ehuneko 23ren eragilea³. Horregatik, Europako Batzordeak 2020an⁴ onetsitako ‘Europar Batasuneko mugikortasun jasangarri eta adimentsuaren Estrategiak’ azpimarra jartzen du hiriek eta tokiko agintariak emisio murrizketan duten zereginean; hain zuzen, hiri mugikortasun jasangarria planifikatzearen eta

¹ Udaleko tokiko gobernu-batzarrak 2025ean onetsia.

² 849E/2024 Ebazpena, irailaren 10ekoa, Ingurumeneko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onesten baitira zaratarako ekintza planak, Iruñerriko Hiri Aglomerazioko Zarataren Mapa Estrategikoaren lurralde esparruan. 2002/49/EE Zuzentaraua, 2002ko ekainaren 25ekoa, Ingurumen zarataren ebaluazio eta kudeaketari eta babes akustiko bereziko eremuak deklaratzeari buruzkoa aplikatzearen laugarren faseari dagokio.

³ Iturria: Europako Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Europako Erregio Komiteari bidalia.

⁴ Europako Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeen Lantaldeari igorria (2020).

onezko, bizikletazko, garraio publikozko eta emisio gutxiko ibilgailu alternatibozko joan-etorriak sustatzearen bitartekoa den zeregin horretan.

EGEek mugak ipintzen dizkiote ibilgailu motordunak hirigune jakin batzuetan sartu, zirkulatu eta aparkatzeari; bidenabar, lagungarri zaizkio bestelako garraiobide batzuen erabileraranzko modu aldaketari. Gainera, emisio mailarik altueneko ibilgailuei murrizketa zorrotzagoak ezarriz, deblaukiago gogogabetzen dute ibilgailurik kutsagarrienak erabiltzetik, eta automobil parkearen berrikuntza sustatzen dute. Horrek guztiak klima-aldaketa samurtzea du helburutzat.

Bestalde, EGEek sustaturiko trafiko murrizketek ahalbidetzen dute klima-aldaketari egokitzeko hirigintza esku-hartzeak egitea, hala nola hiri birnaturalizazioko jarduketak⁵, “bero uharte” efektua samurtzea xede dutenak⁶.

II.4 EMISIO GUTXIKO EREMUEN KOSTUAK

EGE bat ezartzeak badakartza ondorio ekonomiko eta sozial negatiboak ere. Aintzat harturik ‘Emisio gutxiko eremuak sortzeko gidalerroak’⁷, honako hauek hartzen ditugu kontuan:

- Sektore publikoarentzako ezarpen-kostuak, EGEaren diseinuarekin eta abiaraztearekin zerikusia dutenak, bai eta horren kudeaketarako beharrezkoak diren aktiboen eskurapena ere (adibidez, sarrera kontrolerako sistemak).
- Sektore publikoak EGEa kudeatzearen kostuak, hala nola ezarritako murriztapenak betetzearen gaineko kontrolerak eratorriak.
- Ibilgailu berrikuntzaren kostuak, EGEaren ezarpenak zera eragiten duen heinean: partikularrek, enpresek eta sektore publikoak beren ibilgailuak emisio maila apalagoko beste batzuekin ordeztzea.
- Portaera aldaketen ondoriozko kostuak partikularrentzat, enpresentzat eta sektore publikoarentzat, joan-etorrien denboren balizko gehikuntzaren edo jarduerak bertan behera uztearen ondoriozko ongizate galerak kasu, edo horren gustukoak ez diren garraiobideak erabiltzearen ondoriozkoak.

Ondorio negatiboak egoteak erran nahi du EGE bat ezartzeari buruzko erabaki-hartzea egin behar dela abiapuntutzat harturik kostu eta onuren analisi bat, halaber aintzat harturik ezen litekeena dela kostu onura horiek homogeneoki ez banatzea biztanle guztien artean, eta EGEen ordezkotza neurriak – haien helburuetarako lagungarri direnak– ere balitekeela egotea.

II.5 EGEEN NAHITAEZKOTASUNA ETA EZARPENA

Europar Batasuna

Aire kalitateari buruzko zuzentarau europarrek⁸, ingurumeneko airearen kalitateari dagozkion helburuak zehaztu eta ezartzera bideratutako neurriak jasotzen dituzte. Europar Batasuneko kide diren Estatuak behartzen dituzte “kostu neurrigaberik ez dakarten premiazko neurriak hartzea, jomuga balioak eta epe luzeko helburuak erdiesten direla ziurtatzeko” (2008/50/EE Zuzentarauaren 17.1 artikulua). Halaber, ibilgailuentzako hiri sarbideari dagozkion murrizketa sistemak (besteak beste,

⁵ Hiriguneetara natur elementuak ekartzea, hala nola berdeguneak, zuhaitzak, landaredia, parkeak eta lurzoru porotsuak.

⁶ Ingurumarietako landaguneetakoarekin alderatuta hiriguneetan gertatzen den tenperatura igoera zedarritua, horren zergatia izanik, besteak beste, eraikin eta kaleen osagai diren eraikuntza materialetan gertatzen den prozesua, beroa xurgatze, atxikitze eta askatzean datzana.

⁷ Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak 2021ean eginak, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin elkarlanean.

⁸ 2008/50/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko maiatzaren 21ekoa, Ingurumen airearen kalitateari eta Europarako atmosfera garbiago bati buruzkoa, eta (EB) 2024/2881 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko urriaren 23koa, Ingurumen airearen kalitateari eta Europarako atmosfera garbiago bati buruzkoa.

EGEak) jasotzen dituzte, atmosferaren kutsadura apaltzeko hartzen ahal diren neurrien azalpen zerrrendaren barrenean.

2024ko maiatzean EGE aktiboak zituzten 873 hiri zeuden Europar Batasunean, eta 2025ean beste 25 hirik ezarriko zutela espero zen⁹. Dena den, EGEn araubidea ez dago harmonizatua, eta ondorioz, litekeena da haien artean alde nabarmenak egotea.

Espainia

Espainian, KALEk xedatzen du 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien hiri mugikortasun jasangarriko planek –baita kutsadura atalase jakin batzuk gaintitzen dituzten 20.000 biztanle baino gehiagokoen planek ere– nahitaez jaso beharko dutela 2023a baino lehenago EGEak ezarri beharra.

EGEEDek EGEn helburu eta baldintzak zehazten ditu, eta halaber arautzen ditu proiektuen gutxieneko edukia eta haien onespren eta segimendurako prozeduraren zertzelada zenbait ere. Errege dekretu hori 2022ko abenduaren 29an sartu zen indarrean, eta ezarri zuen ezen bere xedapenetara 18 hilabeteko gehieneko epean doitu behar zirela egun hori baino lehenago ezarrita zeuden EGEak.

EGEn ezarpena dela-eta zenbait prozedura judicial izan dira¹⁰. Oro har, epaiak azpimarratzen dute garrantzitsuak direla gardentasuna, parte-hartzea, eztabaida publikoa eta motibazioa, bai eta analisiak egitea ere, nola proportzionaltasunarenak eta alternatibenak hala ekonomiak, gizarteak eta merkatuak pairaturiko inpaktuenak.

2024aren amaiera aldera, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak emandako informazioaren arabera, 50.000 biztanle baino gehiagoko 45 udalerrri espainiarrek jakinarazita zeukaten bazeukatela indarrean EGE bat, eta beste 96 udalerrri izapidetze lanetan ari ziren EGEEa ezartzeko.

Nafarroa

Nafarroan, 4/2022 Foru Legeak, martxoaren 22koak, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoak (aurrerantzean, KAFL), 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri guztietara hedatu zuen EGEEa duen mugikortasun jasangarriko planak edukitzeko betebeharra. Betebehar hori bi urterainoko epe batean bete behar zen, eta epemuga 2024ko apirilean bukatu zen.

Gure txosten baten arabera ('10.000 biztanletik gorako udalerrietan energia aurrezteko eta efizientziaz erabiltzeko neurrien plangintza' izenekoa, 2024ko abenduan argitaratua), udalerrri horietako mugikortasun jasangarriko ezein planek ez zuen jasotzen EGE-ezarpenik, nahiz eta Iruñeko Udalak bai, bazeukan aurreikusita horren abiaraztea.

⁹ Iturria: Sadler Consultants Europe GmbH (Europako Kontu Auzitegiak 'Hiri kutsadura EBn' izeneko 2025eko urriko bere txosten berezian aipatua).

¹⁰ Hizpidera ekartzen ditugu Kataluniako eta Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiek 2022an eta 2024an emandako epaiak, hurrenez hurren Bartzelonako eta Madrilgo EGEEi buruzkoak, bai eta Auzitegi Gorenaren 4853/2023 epaia –azaroaren 2koa– ere.

III. HELBURUAK ETA IRISMENA

Iruñeko EGEaren ezarpenari buruz jardunbide fiskalizazio bat egin dugu.

Honako hauek dira fiskalizazioaren helburuak:

| |
|--|
| 1. helburua: Iruñean ba al dago gutxienez ere EGE bat, araudiak ezarritakoari jarraikiz? |
| 2. helburua: egokiak al dira EGE proiektua, horren ezarpen prozedura eta haren efektuen segimendua egiteko bideak? |
| 3. helburua: Zer baliabide paratu dira EGEa diseinatu, ezarri eta mantentzeko? |

Helburu horiek hainbat azpihelburutan xehakatu ditugu, eta, horietako bakoitzerako, dagozkion auditoretza irizpideak definitu dira, jarraian zehazten den bezala:

1. helburua: Iruñean ba al dago gutxienez ere EGE bat, araudiak ezarritakoari jarraikiz?

| Azpihelburuak | Irizpideak |
|---|--|
| 1.1 2025ean ba al dago EGEn funtzionamenduan? | <ul style="list-style-type: none"> - EGEa Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planean txertatzea, KALek eta KAFLeK agindutakoari jarraikiz. - Udal araudia onestea, zenbait zonatan sartzea, zirkulatzea eta/edo aparkatzea murrizten duena, airearen kalitatea hobetzeko eta klima-aldaketa samurtzeko. - Ibilgailuen kutsagarritasunaren araberako murriztapenak ezartzea, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko ingurumen sailkapeneko kategoriak baliatuz. - Araudiaren argitalpena eta indarraldia. - EGEa seinaleztatuta dago, eta abian du sarrera kontroleko, monitorizazioko eta jarraipeneko sistema bat. - Urraketak arau-hauste astun gisa zehatzen dira, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeari jarraikiz (76.z3 artikulua). |

2. helburua: egokiak al dira EGE proiektua, horren ezarpen prozedura eta haren efektuen segimendua egiteko bideak?

| Azpihelburuak | Irizpideak |
|---|---|
| 2.1 Egokia al da proiektuaren edukia? | <ul style="list-style-type: none"> - Jaso egiten ditu EGEak arautzen dituen 1052/2022 Errege Dekretuaren (aurrerantzean EGEEED deituaren) I. eranskinean ezarritako edukiak. - Sartze, zirkulatze eta/edo aparkatzeen kontroleko sistema bat aurreikusten du, gotorkiagot aplikatzen dena kutsagarritasun handiagotaren arabera. - Kontuan hartzen du salgai banaketaren eta logistikaren sektorea. - Barne hartzen ditu kontrol eta zehapen sistemak. |
| 2.2 Prozedurek bermatzen al dute herritarren eta diseinuan eta ezarpenean interesa duten pertsonen parte-hartzea? | <ul style="list-style-type: none"> - Herritarrek eta interesdunek EGEEPT prestatzeko prozesuan parte hartzeko prozedurak. - EGEEPTri buruzko jendaurreko informazio eta partaidetzako prozesua, jarraikiz EGEEEDren 11. artikuluari eta 27/2006 Legeak (uztailaren 18koa, zeinaren bitartez arautzen baitira, ingurumenaren alorrean, informazioa eskuratzeko, partaidetza publikorako eta justizia eskuratzeko eskubideak), 16. artikuluan xedatzen duena. - Ordenantza proiektuari buruzko kontsulta publikoa, entzunaldia eta informazio publikoa, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz. - Ordenantzari buruzko jendaurreko informazioa eta entzunaldia, hark hasierako onespena lortu ondokoa, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoak, 49. artikuluan dioenari jarraikiz. |
| 2.3 Egokia al da komunikazioa? | <ul style="list-style-type: none"> - Herritarrei zuzendutako komunikazio ekintzak. - Trafikoaren eta ingurumenaren alorretako eskumena duten estatu eta foru agintarientzako komunikazioak. |
| 2.4 Ba al dago mekanismo egokirik EGEEaren ondorioen jarraipena egiteko? | <ul style="list-style-type: none"> - Neurrien eraginkortasuna eta helburuen betetzea monitorizatzeko sistema, barne harturik neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko eta balizko desbideraketan aurrean jarduteko gailu tekniko bat eta zenbait prozedura. - EGEEEDren II. eranskinean jasotako adierazleak erabiltzen dira. - Datu nahiz txostenak prestatu eta argitaratzea airearen kalitateari, klima-aldaketari eta mugikortasun jasangarriari, zaratari eta energia efizientziari buruz. - Mekanismoek aintzat hartzen dituzte inguruko esparruen gaineko efektuak. |

3. helburua: Zer baliabide paratu dira EGEEa diseinatu, ezarri eta mantentzeko?

| Azpihelburuak | Irizpideak |
|---|---|
| 3.1. Zer baliabide paratu dira EGEEa diseinatu, ezarri eta mantentzeko? | <ul style="list-style-type: none"> - Erabilitako baliabideak: gastuak, baliabide propioak, kontratazio publikoa, hitzarmenak... |
| 3.2. Dirulaguntzarik jaso al da EGEEa zehaztu, ezarri eta mantentzeko? | <ul style="list-style-type: none"> - Jasotako dirulaguntzak: dirulaguntza ematen duten entitateak, deialdiak eta zenbatekoak. - Dirulaguntzen bidez estalitako kostuen portzentajea. - Dirulaguntza arautzeko kondizioetan ezartzen diren baldintza eta epeen ikuspegitik zehazte, ezartze eta mantentze prozesuak eginiko aurrerabidearen irismenaren analisia. |

Honako alderdi hauek aztertu ditugu:

- Estimazioen fidagarritasuna.
- EGEaren zehazte eta ezarpenerako kontratu publiko eta mandatuetako arau-betetzea.
- Iruñeko Udalak aurkezturiko dirulaguntza justifikazioaren edukia.

Gure fiskalizazioaren irismen subjektiboak Iruñeko Udala (aurrerantzean, Udala) hartzen du kontuan. Nafarroan dagoen 50.000 biztanle baino gehiagoko udal bakarra da, bai eta, halaber, 10.000 biztanle baino gehiago izanik 2024ko abenduan EGE baten ezarpena planifikatuta zeukan bakarra ere.¹¹

Fiskalizazioaren denbora irismenak 2022-2025 aldia hartzen du. Ezarritako helburuak erdiesteko beharrezkoak izan diren egiaztapenak ere, beste epe batzuei buruzkoak, egin ditugu.

Honako hauek aztertu ditugu lana egiteko:

- Udalak propio bidali zaizkion galdetegiari emandako erantzunak, eta kasuko frogagiriak.
- Alde Zaharrean ibilgailuak sartu, zirkulatu eta aparkatzeari buruzko araudia, 2025ean indarrean zegoena: 2017an onetsitako eta 2022an aldatutako arauak eta 2025ean onetsitako ordenantza.
- EGEPT, tokiko gobernu-batzarrak 2025ean onetsia.
- Udalak eta haren erakunde instrumentala den ANIMSAk helarazitako dokumentazioa, EGEaren zehazte, abiarazte eta ezartzeari buruzkoa eta horretarako jasotako dirulaguntzari buruzkoa.
- 2025ean onetsitako EGEaren ordenantzaren prestatze- eta oneste-espeditentea.
- Kanpo-auditore baten txostena, EGEaren kudeaketa sistemaren taxuketa eta ezarpena finantzatze aldera jasotako dirulaguntza justifikatzeko Udalak aurkezturiko dokumentazioan jasotakoa.
- Aire kalitateari eta zaratari buruzko informazioa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko landa garapeneko eta ingurumeneko departamentuak helarazitakoa.

¹¹ KALEk behartzen du EGEa ezartzera 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri guztietan eta kutsadura atalase jakin batzuk gainditzen dituzten 20.000 biztanle baino gehiagokoetan. Bestalde, KAFLEk betebeharrak hori hedatzen du 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri nafar guztietara.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

IV.1 ONDORIOAK

Iruñean 2025ean ba ote dagoen EGERik

Iruñean, 2025eko abenduaren 29az geroztik, badago EGE bat, kasuko araudiaren arabera¹². Data horretan jarri zen indarrean 'EGEak arautzeko ordenantza' delakoa. Alde Zaharrean ezartzen da eremu hori.

Aipatu egun hori baino lehenago, Alde Zaharraren eremuan bazeuden ibilgailuentzako murrizketak, sartzeari, zirkulatzeari eta aparkatzeari buruzkoak, zeinak ezarriak izan baitziren "Alde Zaharrean sartzeari buruzko Arauak" direlakoetan. Haien azken aldaketa 2022ko abenduan onetsi zen, EGEEDk indarra hartu aurretik, eta EGE eta SKE-Sarbidetza Kontrolatuko Eremu (aurrerantzean, "EGE-SKE") izaera eman zitzaizkien. Araubide horrek ez zituen asetzen KALEk eta EGEEDk EGEentzat ezartzen zituzten definizio eta betekizunak, eta Udalak ez zuen araubidea eguneratu horretarako ezarrita zegoen iragapen epean, zeina 2024ko ekainean amaitu baitzen. 2022ko urte horretan bertan ekin zion EGEa zehazteko eta ezartzeko prozesuari.

Azken batean, 2022tik 2025era bitartean, Udalak EGE bat zehaztu eta ezartzeko prozesu bat egin du, 2025eko abenduaren 29an burutu zena, KAL eta EGEEDren arabera EGE bat indarrean sartzearekin.

EGEPTren eduki eta ezarpen prozedura eta jarraipen mekanismoak

EGEa taxutu eta ezartzeko prozesuari 2022an ekin zitzaion, proiektua zehazte aldera enpresa espezializatu bat kontratatuz. Proiektua 2023an entregatu zen. Tokiko gobernu-batzarrak 2025ean onetsi zuen proiektua, funtsean ezarpen egutegiari eragiten zioten aldaketa batzuk egin ondoren. Bi fasetako ezarpena aurreikusten du: lehena, Alde Zaharrerako, eta bigarrena, Zabalgunerako.

Onetsitako proiektuak oro har aintzat hartzen ditu araudiak behartzen dituen edukiak, besteak beste aintzat hartuz aire kalitatearen eta zarataren alorreko helburu kuantitatiboak, eginiko EGEa zedarritzearen justifikazioa eta araubideari nahiz kontrol eta zehapen sistemei buruzko aurreikuspen bat, bai eta analisi juridiko eta eragin ekonomiko eta sozialari buruzko zenbait ere.

Dena den, EGEPTren kostu eta onura analisia ezin da osotzat eta orekatutzat hartu; gehienbat, EGEaren eraginei buruzko estimazioak gizartea bere osotasunean hartzen duelako onuren kuantifikazioan, baina ez kostuenean, azken horretan Udalaren gastuak bakarrik hartzen baitira kontuan, txosten honen II.2.1 gehigarrian zehazten dugun bezala.

EGEPT eta ordenantza prestatu eta onesteko, araudiak xedatuaren arabera parte-hartze prozesuak egin dira, baina EGEaren Alde Zaharreko ezarpenaren inguruan egon ziren arazotuta. Prozesu horietan guztira 19 pertsona fisikok, eragile ekonomikoen bertz entitateen ordezkariak eta administrazio publiko batek egin dituzte kontsultak, ekarpenak edo alegazioak¹³.

Proiektuak sistema tekniko bat aurreikusten zuen, EGEa kudeatzeko (sarreraren, ibilgailu kopuruaren eta aparkatzearen gaineko kontrola) eta hark trafikoa, airearen kalitatean eta zarata mailetan izandako efektuen monitorizazioa egiteko. Sistema hori gutxienez ere 2024ko urtariletik dago funtzionamenduan, egin gabe dagoelarik Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek eskatzen duen datu babesari buruzko eragin ebaluazioa; bidenabar, identifikatu gabeko arriskuak ekartzen ahal dizkie pertsonen eskubide eta askatasunei. Ebaluazio hori egin beharra 2023an jakinarazi zion Udalari Datuen Babeserako Batzorde Delekatuak. Gure fiskalizazioa zela-eta, Udalak 2025eko azaroan ekin zion hura egiteko izapideei.

¹² Salbu eta EGEEDko 8. artikulua aldaketari dagokionez, zeinak arautzen baitu ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuen ezarpenari dagokiona, 9/2025 Legeak, abenduaren 3koak, Mugikortasun jasangarrikoak araututa.

¹³ Ez dira barne hartu 2022an eginiko jardunaldi bateko parte-hartzaileak, ez baita haien kopuruaren berri agertzen.

Halaber aurreikusten dira EGEaren urteroko datuak eta jarraipen txostenak, bai eta bi urtean behingo berrikuspenak ere, haren funtzionamendua eta helburu lortzea aztertzeko.

Hitz batez, EGEaren proiektu eta ordenantzaren edukia, bai eta haiek prestatu eta onesteko prozedurak ere, oro har araudiaren arabera dira. EGEaren kudeaketarako eta jarraipena egiteko sistema tekniko bat eta zenbait prozedura paratu dira. EGEPTren kostuen eta onuren analisia ezin da osotzat eta orekatutzat jo, kostuen eta onuren tratamenduan asimetria bat dagoelako. Gainera, kontsultarako eta parte hartzeko prozesuak EGEa Alde Zaharrean ezartzearen inguruan ardaztu dira. Bestetik, litekeena da datu pertsonalen babesaren alorrean identifikatu gabeko arriskuak egotea, ezen EGEaren kudeaketa integralerako sistema gutxienez 2024etik funtzionatzen ari baita, baina arauak gai horretan exijitzen duen eragin ebaluazioa egin ez dela.

EGEa zehaztu, ezarri eta mantentzeko paratu diren baliabideak

Udalak 1,28 milioi gastatu ditu 2022-2025 epean EGEa landu eta ezartzeko; horietatik, 1,18 milioi proiektu hau egite aldera ANIMSari eginiko berriazko mandatu baterako dira.

Jarduketa hori finantzatzeko, Udalak 914.726 euroko dirulaguntza eskuratu zuen Garraioetako, mugikortasuneko eta hiri agendako ministerioarengandik, 'Next Generation EU' funtsen bitartekoa. Jarduketak egiteko gehieneko epea 2023ko abenduaren 31n amaitu zen. 2024 eta 2025ean, ministerioak EGEaren ezarpen efektiboaren egunari buruzko informazio gehigarria eskatu du behin eta berriro, bai eta eremu horren zedarritze espazialak dirulaguntza eskaeran aipatuarekin bat ez etortzeari buruzkoa ere. Txosten hau egitean ez da ikusten ea ministerioak balekotsat jotzen ote duen Udalak aurkezturiko justifikazioa.

Laburbilduz, 2022-2025 epealdian, EGEa ezartzeko prozesuak 1,28 milioiko gastua ekarri du, partzialki finantzatua Estatuko administrazio Orokorrek emandako eta 'Next Generation EU' funtsekin finantzatutako 914.726 euroko dirulaguntza batekin.

IV.2 GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Eginiko lana kontuan hartuta, honako gomendio hauek nabarmentzen ditugu:

- *Urgentziaz egin bedi emisio gutxiko eremua kudeatzeko sistemako datu pertsonalen babesaren alorreko eragin ebaluazioa, eta, kasua bada, identifikatzen diren arriskuak samurtzeko behar diren neurriak har bitez.*

- *Iruñeko Zabalgunean emisio gutxiko eremu bat ezartzeko aukeraren ebaluazioari dagokionez, egin bedi proiektu tekniko berri bat (ordenantzaren 3.6 artikuluari jarraikiz), datu eguneratuak jasoko dituen, interesdunek parte hartzeko prozesu berriekin eta gizartearen osotasunarentzako kostuak ere aintzat hartuko dituen eragin analisi batekin.*

Beste gomendio bat jaso dugu II. gehigarrian, zeinetan biltzen baitira fiskalizazioaren beste ohar eta aurkikuntza batzuk.

V. IRUÑEKO UDALAREN ARDURA

Udala behartuta dago KAL eta KAFL betetzera. Zehazki, KALek betebeharrak gisa jartzen dio mugikortasun jasangarrirako plan bat onestea, zeinean jasoko baita EGE bat 2023. urtea baino lehenago ezar dadila.

Udalaren eta haren menpeko entitateen gobernu- eta administrazio-organoei, zeinek bere esparruan, bermatu behar dute ezen eginiko kudeaketa jarduera eta eragiketak bat datozela indarreko arauekin; orobat, beharrezko bideak paratu behar dituzte, proposaturiko helburuetan eraginkortasuna eta baliabide publikoen erabileran efizientzia eta ekonomia lortzeko. Halaber, xede hori lortzeko beharrezkotzat jotzen dituzten barne kontrolerako sistemak ezarri behar dituzte.

VI. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ARDURA

Gure ardura da konklusio batzuetara iristea, Iruñeko EGEn ezarpenari buruz egin dugun fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, gure lana egin dugu ISSAI-ESetan ezarritako kanpo kontroleko erakunde publikoak fiskalizatzeko funtsezko printzipioekin bat etorrituz, eta bereziki, fiskalizazio operatiboari buruzko ISSAI-ES 300ekin, zuzenbide betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400ekin, bai eta GPF-OCEX Kanpo Kontrolerako Organoen Fiskalizazio Gidaliburu Praktikoekin ere. Printzipio eta gida horiek exijitzen dute etika betekizunak bete ditzagula eta auditoretza planifika eta exekuta dezagula, gizalegeko segurtasun bat lortze aldera Udalak araudiaren arabera EGE bat ezarri izanari buruz, eta horren taxutze eta ezarpenerako jarraituriko prozesua araudi indardunaren eta kudeaketa oneko printzipioen arabera izanari buruz.

Fiskalizazio bat egiteko, prozedurak aplikatu behar dira, ateratako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza ebidentzia lortzeko. Gure ustez, lortu dugun auditoretza ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du ateratako konklusioei funtsa emateko.

Entitatearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste auditoretza proba planifikatuen irismenaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazio operatiboaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, behin indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ostean.

Iruñean, 2026ko martxoaren 31n

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

I. GEHIGARRIA. ARAU ESPARRUA

Fiskalizazio lan honi dagokionez, honako hauek dira muntarik handieneko arauak:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, zeinak pertsona fisikoen babesa ezartzen baitu datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez eta indarrik gabe uzten baitu 95/46/EE zuzentaraua.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/1119 Erregelamendua, 2021eko ekainaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baita klima neutraltasuna lortzeko esparrua eta aldatzen baitira 401/2009 (EE) eta 2018/1999 (EB) erregelamenduak ("Klimari buruzko Europako araudia").
- 2002/49/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2002ko ekainaren 25ekoa, Ingurumen zarataren ebaluazio eta kudeaketari buruzkoa.
- 2008/50/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2008ko maiatzaren 21ekoa, Ingurumen airearen kalitateari eta Europako atmosfera garbiago bati buruzkoa.
- (EB) 2024/2881 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko urriaren 23koa, Ingurumen airearen kalitateari eta Europako atmosfera garbiago bati buruzkoa Zuzenbide nazionaletara jaulkia izateko duen epea 2026an amaitzen da.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa.
- 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, zeinaren bitartez arautzen baitira, ingurumenaren alorrean, informazioa eskuratzeko, partaidetza publikorako eta justizia eskuratzeko eskubideak (bertan jasotzen dira 2003/4/EE eta 2003/35/EE zuzentaruak).
- 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzkoa
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez onesten baita trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu bategina.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoa.
- 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra.
- 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez garatzen baita azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa, ingurumen zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez.
- 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zeinaren bidez garatzen baita azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.
- 102/2011 Errege Dekretua, urriaren 28koa, Airearen kalitatearen hobekuntzari buruzkoa
- 1052/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Emisio gutxiko eremuak arautzen dituena.
- TRM/1422/2023 Agindua, abenduaren 22koa, zeinaren bidez aldatu egiten baita abuztuaren 17ko TMA/892/2021 Agindua, oinarri arau-emaileak onesten dituena Emisio gutxiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioa digitalki eta modu jasangarrian eraldatzeko laguntzen programa udalerrientzat, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barnean, eta 2021eko ekitaldiari dagokion deialdia onesten eta argitaratzen baita.

- Ministro-agindua, 2022ko maiatzaren 20an Garraio eta Mugikortasun Idazkaritza Nagusiak eskuordetzaz emana, zeinaren bidez erabakitzen baitira honen lehenbiziko deialdiko laguntzak: Emisio gutxiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioa digitalki eta modu jasangarrian eraldatzeko laguntzen programa udalerrientzat, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barnean.

- TRM/1422/2023 Agindua, abenduaren 22koa, zeinaren bidez aldatu egiten baita abuztuaren 17ko TMA/892/2021 Agindua, oinarri arau-emalleak onesten dituen Emisio gutxiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioa digitalki eta modu jasangarrian eraldatzeko laguntzen programa udalerrientzat, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barnean, eta 2021eko ekitaldiari dagokion deialdia onesten eta argitaratzen baita.

- 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoa.

Halaber da gure lanarentzako erreferentzia baliagarria “Emisio gutxiko eremuak sortzeko gidalerroak” deritzon dokumentua, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren laguntzaz prestatua (2021).

II. GEHIGARRIA. OHARPENAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZAK

II.1.HELBURUA: IRUÑEAN BA AL DAGO 2025EAN EGE BAT GUTXIENEZ ERE, ARAUDIAK EZARRITAKOARI JARRAITUZ?

II.1.1 azpihelburua 2025ean ba al dago EGEn funtzionamenduan?

Iruñerriko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planak¹⁴ ez du aurreikusten EGEn ezein udalerritan ezartzerik, KALek eta KAFLeK ezarritakoarekin kontraesanean. Dena den, Iruñeko Udalak bai, jaso zuen EGE baten ezarpena, Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako bere Estrategiaren barrenean, zeina 2021ean onetsi baitzen.

Gaur egun aplikatzekoa den araudiaren arabera EGE bat 2025eko abenduaren 29an ezarri zen Iruñean, kasuko ordenantza arau-emaileak indarra hartzearekin batera.

Lehenago, bazegoen Iruñean, 2017az geroztik, Sarbide Kontrolatuko Eremu bat (aurrerantzean, SKE), zeinak murriztu egiten baitzuen Alde Zaharreko ibilgailu zirkulazioa. KAL onetsia izan eta gero, Udalak aldatu egin zuen eremu horri buruzko araudia, hari "EGE-SKE izaera emanez". Aldaketa hori Herritarren Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak 2022ko abenduaren 22an emandako ebazpen baten bidez onetsi zen, zeinak ezartzen baitzuen 2023ko urtarrilaren 1ean hartuko zuela indarra, eta urte hartako urtarrilean argitaratu zen NAOn.

Ebazpen haren zioen azalpenak esaten du ezen lehenagotiko SKEak sartze, zirkulatze eta aparkatze mugak ezartzen zituela ibilgailuentzat, airearen kalitatea hobetzeko eta berotegi efektuko gasen emisioak samurtzeko, hain zuzen EGEn definizioak ezartzen duen bezala, eta haren aldaketak neurri bat jasotzen duela, ingurumen bereizgarria duten ibilgailuak sustatzeko, EGE baten "ezarpenari ekiteko" modu gisa, KAL garatuko duen "erregelamendu bat onesten den bitartean".

EGE-SKE horrek kasuko eremurako sarbidea baldintzatzen du Udalaren banakako baimena lortzera. Baimen hori, gehienbat, egoiliarrei ematen zaie, edo establezimendu komertzialen nahiz zamalanak egiten dituzten enpresen titularrei. Bazegoen sartzeak kontrolatzeko eta monitorizatzeko sistema bat.

Alabaina, EGE-SKEak arautzen dituen murrizketak eta baimenak ez zeuden definituta emisio mailaren arabera ibilgailu sailkapenari jarraikiz, indarreko Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrek ezartzen duenaren arabera, KALek besterik ezartzen badu ere. Ibilgailuen kutsagarritasunaren arabera murrizketa doikuntza bakarra zera zen, kutsagarritasun txikienektzat¹⁵ jotzen ziren pakete banaketako ibilgailuek zilegi zutela EGEn sartzea gehienez 30 minutuko tarte batez, zamalanak egite aldera, zamalanetarako orokortasunez ezarritako ordutegitik kanpo.

EGE-SKEko murrizketen arau-haustea, normalean, arintzat tipifikatzen da. Soilik larritzat jotzen da arestian aipatu dugun banaketa ibilgailuen tratamendu bereziaren erregulazioa urratzea Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen 76.z.3 artikulua, EGEn buruzkoaren, arabera. 2022-2025 aldian, ez da zigorrik izapidetu arrazoi horrengatik¹⁶.

Beraz, EGEn araudiaren eta ibilgailuek kutsatzeko duten ahalmenaren arteko lotura oso txikia da, eta ez dago Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean ibilgailuek duten emisio mailaren arabera sailkapenaren arabera formulatuta. Horrengatik, uste dugu ez zuela KALek eta EGEDk ezarritako definizioarekin eta baldintzekin bat zetorren EGE bat ezartzen.

¹⁴ 2029tik 2021ra bitartean Iruñerriko Mankomunitateak, inplikaturiko 18 udaletako 17k (Iruñekoak barne) eta Nafarroako Gobernuak onetsia.

¹⁵ Zehazki, karga bolumena 3,5 m³-rainokoa duten ibilgailuak, ingurumen bereizgarria 0 dutenak eta energia iturria BEV (bateriako ibilgailu elektrikoa), REEV (autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa), FCEV (erregai piladun ibilgailu elektrikoa) edo HICEV (hidrogeno errektuntzako ibilgailua) dutenak.

¹⁶ 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko urriaren 13ra bitarteko aldirako Udalak emandako informazioaren arabera.

EGEEDk epe iragankor bat ezarri zuen, 2024ko ekainean amaitu zena, aldez aurretik ezarrita zeuden EGEak haren eskakizunetara egokitzeko. Hala ere, Udalak egokitzapen hori egin zuen EGE berria arautzen duen ordenantza 2025eko azaroan behin betiko onetsiz eta urte horretako abenduaren 29an indarrean jarriz.

2025eko abenduan, EGEEDren 8. artikulua aldatu egin zen, eta EGEak arautzen dituen udal araudiak urteko gutxieneko helburuak xedatu behar zituen ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak ezartzeko. EGEPTk eta 2025ean onetsitako ordenantzak ez dute arlo horretako helbururik xedatzen.

Azken batean, gure ustez, Iruñeko Alde Zaharrean 2025ean, abenduaren 29a baino lehen, indarrean zegoen ibilgailuen sarbidea, zirkulazioa eta aparkatzea araudiak kutsadura eta zarata murrizten laguntzen zuen, eta EGEaren helburuak dira horiek, baina ez zuen EGE bat eratzen KALen eta EGEEDen ezarritako definizio eta baldintzen arabera. Adierazi den datan Alde Zaharreko EGEa arautzen duen ordenantza indarrean sartzen zenetik, udalerrian bada EGE bat aplikagarria den araudiaren arabera, salbu eta ez dituelako aintzat hartzen urteko helburuak ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak ezartzeko, 2025eko abendutik aurrera nahitaezkoak direnak.

II.2 HELBURUA: EGOKIAK AL DIRA EGE PROIEKTUA, HORREN EZARPEN PROZEDURA ETA HAREN EFEKTUEN SEGIMENDUA EGITEKO BIDEAK?

II.2.1 azpihelburua. Egokia al da proiektuaren edukia?

Aztertu dugu ea EGEPTk aintzat hartzen ote dituen EGEEDren I. eranskinean aurreikusitako edukiak.

Aurretiazko egoeraren azterketa: kutsadura eta parke zirkulatzaileria

EGEPTk airearen kalitatearen analisi bat dakar, kalitatea neurtzeko proiektatutako airearen EGEaren lurralde eremutik hurbilen dauden hiru estazioetan (Iturraman, Felisa Munárrizen eta Arrotxapean) 2020-2022 aldiari jasotako datuetan oinarrituta. Horietako bakarra ere ez dago esparruan bertan baina, proiektuak deritzenez, "hiriko airearen kalitatearen eboluzioaren ideia orokor bat izateko" aukera ematen dute.


Proiektuan datorren kutsaduraren jatorriaren analisia oinarritzen da 2017-2018ko datuetan, 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia lantzeko egindako azterlan batetik hartuta. Azterketa horren arabera, garraio sektoreak sortzen du azken energiaren guztizko kontsumoaren % 51 eta berotegi efektuko gasen emisioen % 56.

2022. urtearen amaieran udalerrian erroldatuta zeuden 131.150 ibilgailuen arabera egiten da ibilgailu parkearen karakterizazioa, baita ibilgailu zirkulatzailerien parkearena ere. Azken azterketa hori egiteko, Iruñeko hainbat eremutako zirkulazioa aztertzeko kameretatik ateratako datuak hartu dira oinarritzat.

Gainera, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioaren telefoniako datuak erabiliz aztertzen dira joan-etorriak, emisioak kalkulatzeko. Ondorioztatzen da lanegunetako joan-etorrien¹⁷ % 85 abiapuntua edo helmuga udalerritik kanpo duten joan-etorriak izaten direla. Zenbatesten da guztizko emisioak 161.562 tona karbono dioxido (CO₂), 276 tona nitrogeno-oxido (NO_x) eta 44 tona partikula esekiak (PM_{2,5}) direla. Horien guztien % 30 inguru udalerrian bertan isuriko lirakeke. Halaber, zenbatesten da udalerriri barruan mugitzen diren ibilgailuek urtean 64,6 milioi litro erregai kontsumitzen dituztela.

¹⁷ Ibilgailu-kilometroan (ibil-km) neurtuta, hau da, mugitzen diren ibilgailuen kopurua bider horietako bakoitzak egindako kilometroen kopurua.

Grafiko honetan, parke zirkulatuzailearen banaketari buruzko zenbatespena ageri da, ingurumen bereizgarriaren kategoria desberdinen arabera, ibilgailu bakoitzak egindako kilometroen arabera haztatuta, EGEPTn ageri diren datuen arabera.



Iturria: Geuk egina, EGEPTren datuetan oinarrituta.

Ez da agertzen parke zirkulatuzaileari eta ibilgailuen joan-etorriei buruzko datuak zein alditakoak diren. Edonola ere, 2023a baino lehenagoko datuetan oinarritzen dira analisi guztiak, proiektua urte horretan landu zelako hasiera batean, eta azkenean 2025ean onetsi bada ere, aintzat hartzen dituen analisiak ez direlako eguneratu.

Helburuak

EGEEDk airearen kalitatea hobetzeko eta klima-aldaketa arintzeko eskatzen dituen “helburu nagusiak” ezartzen ditu proiektuak, eta garraioaren kalitate akustikoari eta energia efizientziari buruzko helburu kuantitatiboak ere ezartzen ditu.

Zehazki, honako hauek dira helburuak:


| EGEED kategoria | Adierazlea | Unitateak | Egungo balioa (2022) EGEPTren arabera | 2030eko helburua |
|---|--|---|---------------------------------------|------------------|
| Airearen kalitatea | NO ₂ immisioak | ug/m ³ (urteko muga balioa) Orduko muga balioa zenbat aldiz gainditu den | 31 0 | 20 0 |
| | PM _{2,5} immisioak | ug/m ³ (urteko muga balioa) | DG | 10 |
| | PM ₁₀ immisioak | ug/m ³ (urteko muga balioa) | 14 | 14 |
| | NO _x emisioak | Tonak | 276 | -% 60 |
| | PM _{2,5} emisioak | Tonak | 44 | -% 40 |
| Klima-aldaketa eta mugikortasun jasangarria | CO ₂ emisioak | Tonak | 161.562 | -% 64 |
| | Ibilgailu pribatuen joan-etorrien ehunekoa | Ehunekoak | 42 | 30 |
| | 0 emisioak ibilgailuen ehunekoa | Ehunekoak | 2 | 15 |
| Zarata | Nafarroa Behereko etorbideetik doan trafikoaren ehunekoa | Ehunekoak | 65 | 30 |
| | Zarata | Egunez-arratsez-gauetz (L _{den}) 65 dBA gaintzearen eraginpean dauden pertsonen kopurua | 162.000 ¹⁸ | 0 |
| Energia-efizientzia | Trafikoa | Ibil-km | 3.200.000 | -% 12, 2030rako |
| | Erregai-kontsumoa | Litroak | 64.624.800 | -% 56 |

Iturria: EGEPT.

¹⁸ Zenbateko hori ez dator bat proiektuaren 43. orrialdean adierazitakoarekin: 55.900 pertsona. Informazio horren arabera, 162.000 pertsonaren zenbateko hori dagokio ibilgailuen zirkulazioak gauean (L_n) 55 dBA baino gehiagoko zarata-maila eragiten duen eremuetan bizi denari. Bestalde, adierazi behar dugu ezarritako helburuak baino zarata maila handiagoak jasaten dituzten herritar guztiak ez direla bizi proiektatutako EGEaren esparruan.

EGEaren mugaketa

EGE bi fasetan proiektatzen da. Lehendabizikoaren eremua Alde Zaharrari dagokio, aurretik zegoen EGE-SKEarekin bat etorritz, eta bigarrenarena Zabalguneari (lehen eta bigarren zabalguneak barne), mapa honek erakusten duen moduan:



Iturria: EGEPT.

Proiektuaren arabera, bi eremuen baturak 152 hektareako azalera du, eta 29.338 pertsona bizi dira bertan; lehen faseari dagokiona, berriz, 44 hektareakoa da.

Proiektuaren II. eranskinean azaltzen da eremu hori zehazteko baliatzen den metodologia. Metodologia hori oinarritzen da ingurumen eta soinu poluzioari eta parametro sozioekonomikoei eta mugikortasunari (biztanleria, merkataritza jarduera, bide morfologia eta garraio publikoa) buruzko adierazleetan.

Aurreikusitako murrizketak eta aplikatzeko egutegia

Proiektuaren arabera, lehen fasea 2026ko urtarrilean ezarriko litzateke, eta ingurumen bereizgarririk ez duten ibilgailuei eremura sartzeko debeku orokorra ezartzea aurreikusten du. Fase horretan, gutxienez, debeku horrentzako salbuespen esanguratsuak aurreikusten dira, besteak beste, honako hauei eragiten dietenak: zonaldean bizi direnei, merkataritza eta ostalaritza establezimenduen titularrei, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko txartelen titularrei, eta zerbitzu publikoak ematen dituzten ibilgailuei.

2025ean onetsitako ordenantza, oro har, bat dator proiektuaren lehen fasearekin. Ez ditu indargabetzen lehendik indarrean zeuden Alde Zaharrerako sarbideak erregulatzen dituzten arauak, eta beraz, erregimen aplikagarri berria murriztaileagoa da: alde batetik, lehendik indarrean zegoen arauak murrizketak eta salbuespenak ezartzen jarraitzen du, eta bestetik, ordenantza berriak salbuespenak murriztu egiten ditu, eta gainera, kasu batzuetan, ibilgailuen ingurumen etiketari buruzko baldintzak bete daitezela eskatzen du.

Onetsitako neurriekin, 2025ean Udalak uste zuen Alde Zaharraren inguruko zirkulazioa 650 ibilgailu (% 20) murriztuko zela egunean, eta hartara urtean 2.994 tona CO₂ gutxiago isuriko zirela¹⁹. Geroztiko egitate modura, 2026ko martxoan, EGEren lehen bederatzi asteetako datuak argitaratu ditu Udalak, eta haiek aditzera ematen dutenez, zirkulazioa ehuneko sei murriztu da²⁰.

EGEPTk aurreikusten du, EGEaren berrikuspen bana egingen dela 2028an eta 2030ean. Azterketa horien ondorioek aukera emanen dute EGEa pausoka ezartzeari buruzko erabakiak hartzeko, batez ere haren hedadura geografikoari dagokionez (Zabalgunera zabaltzea) eta/edo haren erregulazioa aldatzeko, adibidez, "B" ingurumen bereizgarria duten ibilgailuei zirkulatzea debekatuz edo hasieran ezarritako salbuespenak murriztuz.

Kontrol eta zehapen sistema

EGEa kontrolatzeko, kamera sistema bat proiektatu da eta sistema horri esker, egonaldiaren iraupena neurtu eta ez-betetzeak zehatzeko ebidentzia ere eskaintzen ahalko da. Proiektuak lehen faseko 13 kameran eta hiriko beste puntu batzuetan jarritako 50 kameren kokapena zehazten du, hartutako neurrien eragina monitorizatzeko.

Alde horretatik, 2022 eta 2023 artean, EGEaren kudeaketa integraleko sistema bat landu da, matrikulak eta EGEaren edukierak irakurri eta lur gaineko aparkalekua kontrolatzeko aukera ematen duena. Horretarako, matrikulak irakurtzeko 65 kamera, trafikoa aztertzeko bost kamera eta aparkatzeko 375 sentsoare ditu, beste hainbat osagaiz gainera. Era berean, kameraz hornitutako sistema ibiltariak jarri dira Udaltzaingoaren 12 ibilgailutan.

Sistemak ez-beteteren bat kausitzen duenean, zehapen proposamen bat erregistratzen du automatikoki, nahiz eta Udaltzaingoak alde aurretik banan-banan baliozkotu ondoren bakarrik izapidetzen den hori.

EGEaren murrizketak ez betetzea arau-hauste astuntzat jotzen da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginean xedatzen denaren arabera.

Beste plangintza tresna batzuekiko koherentziaren azterketa

Proiektuak badakar koherentzia-azterketa bat Mugikortasun Ordenantzarekiko eta harekin zerikusia duten udal-plangintzako tresna nagusiekiko: 'Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia', 'Iruñerriko Hiri Aglomerazioko Zarataren Mapa Estrategikoa' (2022), 'Iruñeko Bidegorrien Plana 2017-2022', lehen eta bigarren zabalgunekak babesteko hiri-jarduerako plan bereziak eta 'Iruñerriko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana'. Orokorrean, ez da inkoherentziarik hauteman, eta elkarren osagarri diren neurri batzuk baditu plan bakoitzak.

Oso garrantzitsuak izaten ahal dira EGEaren eta helburu berak lortzen laguntzen duten beste neurri batzuen arteko sinergiak, bai Udalak bultzatutakoak, bai beste administrazio batzuek sustatuak. Alde horretatik, Iruñerriko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planaren esparruan Udalak berak aldaketa modala sustatzeko egindako ekintzak nabarmentzen ditugu, bai eta gaur egun izapidetzen ari den II. Zabalguneko hiri-jarduketako plan bereziaren balizko ondorioak ere. Plan horrek aurreikusten du Nafarroa Behereko etorbideak ibilgailu motordun pribatuen zirkulazioa hartzeko duen gaitasuna erdira murriztea, eta aurreikuspen horren arabera, ibilgailu gutxiago ibiliko dira bide horretatik, eta bide hori denez inguru horretan zirkulazio handiena duena, airearen kalitatearen eta zarataren helburuak lortzen lagunduko du.

¹⁹ 2025eko ekainaren 9an argitaratutako prentsa oharra dioenez.

²⁰ 2026ko martxoaren 5eko prentsa-oharra esaten duenez; datu horiek aintzat hartuta, Udalak urtean 75 tona CO₂ gutxiago isurtzea aurreikusten du. Horri buruzko informazioa eskatuta, Udalak ez du azaldu 2025eko ekainean eta 2026ko martxoan argitaratutako emisioak murrizteko zenbatespenak irizpide homogeneo eta/edo alderagarriekin egin ote diren.

Airearen kalitatearen hobekuntzaren zenbatespena

Proiektuak alderatu egiten ditu “joerazko egoera” bat (2022an onetsitako EGE-SKEaren murrizketei eutsiz, aldaketarik gabe) eta murrizketa bat, “C”, “ECO” eta “Zero emisioak” ingurumen-bereizgarria duten ibilgailuei soilik sartzeko eta zirkulatzeko aukera emanen liekeena ezartzen duen EGEaren egoera bat.

Urteko emisio bolumen hauek (tonak urteko) zenbatesten ditu:

| | CO ₂ | NO _x | PM _{2,5} |
|--|-----------------|-----------------|-------------------|
| Egungo egoera (2022) | 161.562 | 276 | 44 |
| 2030ko egoera joeraz | 146.911 | 217 | 38 |
| 2030ko egoera C, ECO eta Zero soileko EGEarekin | 120.311 | 111 | 26 |
| Emisioen murrizketaren ehunekoa, 2030ean, joerazko egoeran | -9 | -21 | -14 |
| Emisioen murrizketaren ehunekoa, 2030ean C, ECO eta Zero soileko EGEarekin | -26 | -60 | -40 |

Iturria: Geuk egina, EGEPTren datuak oinarritzat hartuta.

Zenbatespen horiek proiektatutako EGEaren multzoari dagozkio, bi faseak barne hartuta. Ez dira aurreikusten ‘B’ ingurumen bereizgarria duten ibilgailuei zirkulatzeko uztea edo EGE soilik Alde Zaharrean, eta ez Zabalgunean, ezartzea bezalako aukerak²¹.

Azterketa juridikoa, ekonomikoa eta eraginena

Azterketa juridikoa

Azterketa juridikoa ere badakar egitasmoak. Gainera, tokiko gobernu-batzarrak ordenantza proiektua onetsi aurretik, txosten juridiko bat landu zen.

Azterketa ekonomikoa eta inpaktu soziala

Proiektuak badakar EGEak lehiakidetzan eta merkatuan dituen ondorioen azterketa bat; azterlan hori Madrilgo kasuan oinarritzen da, “historia eta datu garrantzitsuak dituen Espainiako EGE bakarra” baita hura. Ondorio kualitatiboak aurkezten ditu bidaia kopuruan eta joan-etorrien banaketa modalean espero diren ondorioei buruz, eta merkataritza, hotel eta ostalaritza sektoreetan eta aparkaleku publikoetan izanen duen eraginari buruz.

Aztertzen ez diren beste pertsona eta jarduera batzuetan izaten ahal diren inpaktu negatiboak ere aipatzen ditu, baina haiek saihesteko kontuan hartu beharko liratekeen salbuespenak aurreikuste aldera baino ez (adibidez, egoiliarak, administrazio publikoak eta ibilgailuak konpontzeko tailerrak, besteak beste). Onetsita dagoen ordenantzaren, orokorrean, tratamendu bereziak jasotzen dituzte egoera horiek, baina ez beti zehatz-mehatz proiektuan aurreikusitako baldintzetan.

Proiektuak kuantifikatzen ditu EGEa ezartzeak gizartearentzat bere osotasunean dakartzan gizarte onurak urteko 41,52 milioiko diru baliokide batean. Kopuru hori dagokie energia kontsumoa murrizteari (zenbatekoaren % 72) eta kanpo eraginei, esate baterako, airearen kalitatea hobetzeari, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteari eta istripuak gutxitzeari. Gizarte-onura horiek eta haien diru-baliokidetasuna zenbatesteko erabiltzen diren metodoak aipatzen ditu EGEPTk. Hala ere, Udalak ez du kalkulu horien xehetasunik, EGEPT landu zuen presak egin baitzituen haiek.

²¹ 2025eko abenduaren 29tik indarrean dauden murrizketak Alde Zaharrean aplikatzen dira, eta zirkulatzeko aukera ematen diete ‘B’, ‘C’, ‘ECO’ eta ‘Zero emisio’ bereizgarriak dituzten ibilgailuei.

Kostuei dagokienez, proiektuaren arabera, EGEa ezartzeak 1,06 milioiko kostua izanen du Udalarentzat, eta 50.000 euro gehituko zaizkio hasierako komunikazio kanpainagatik. Mantentze gastuak urtean 50.000 eurokoak izanen lirateke.

Aldiz, ez dira zenbatesten EGEa ezartzeak gizarte osoari ekarriko dizkion kostuak²². Zehazki, ez dira aztertzen ibilgailuak energia kalifikazio hobea duten beste batzuekin ordeztzeko kostuak, ez eta EGEak eragindako portaera-aldaketek ongizateari nola eragiten dioten ere (adibidez, joan-etorrien denborak aldatzea, jarduerak desagerraraztea edo hain gustuko ez diren garraiobideak erabili behar izatea). Kostu horiek oso garrantzitsuak izaten ahal dira, eta halakoei egiten die erreferentzia ‘Emisio gutxiko eremuak (EGE) sortzeko gidalerroak’ dokumentuak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren laguntzaz 2021ean landu zuenak.

Hala, bada, EGEPTn aintzat hartutako kostuen eta onuren analisia asimetrikoa da. Alde batetik, EGEaren onurak gizarte osoan dituen ondorioak (kanpo-eragin positiboan moneta-baliokidearen kalkulua ere barne dela) aintzat harturik zenbatesten ditu; eta bestetik, Udalaren gastua soilik kontuan hartuta zenbatesten ditu kostuak, EGEa ezartzeak gizarte osoari ekartzen ahal dizkion kostuak kontuan izan gabe.

EGEPTn bertan jasotako analisisiez gain, ordenantza arautzailearen espedienteak inpaktu ekonomikoari eta jasagarritasunari buruzko txosten bana dakartza, eta haien artean ere badago asimetria.

Txosten ekonomikoa oinarritzen da EGEPTn barne hartzen diren Udalarentzako gastu-kalkuluetan. Hiriko ekonomia orokorraren eta sektore pribatuaren gaineko ondorioei dagokienez, “minimoak izan beharko luketela” adierazten du, I. faseari, aurretik zegoen EGE-SKEarekin bat datorrenari buruzko informazioa ematen baita. Edonola ere, proiektuan datorren azterketara igortzen da.

Bestalde, jasagarritasunean duen eraginari buruzko txostenak proiektuaren ‘Gizarte, genero eta desgaitasun eraginaren azterketa’ atala errepikatzen du, baina ez da kontuan hartzen atal hori EGE osoari (I. eta II. faseei) dagokiola, eta informazioa jaso behar duen ordenantza proiektuak, berriz, lehenengoa bakarrik arautzen duela. Hala ere, txostenaren azken ondorioa kualitatiboa da, EGEak “ingurumenean eragin positiboa” eta “osasunaren eta bizitzaren babesean eragin positiboa” dituela adieraziz.

Arestian deskribatu ditugun hutsuneak eta asimetriak kontuan hartuta, ezin da osotzat eta orekatutzat hartu EGEaren diseinu eta ezarpen prozesuan egindako kostuen eta onuren azterketa.

Talde sozial ahulenetan eta desgaitasuna dutenengan eragina

Proiektuak ez du aztertzen, beren-beregi, gizarte-talde ahulenetan izan lezakeen eragina, ezta desgaitasunarekin loturikoa ere. Halaz eta guztiz ere, eremu horietan ondorio negatiboak arintzea aurreikusten du, diru-sarrerak bermatzeko errentak jasotzen dituzten pertsonak eta mugikortasun murriztua duten desgaituak EGEaren murrizketetatik salbuetsiz. Onetsi den ordenantzak ez du salbuespenezko tratamendurik aurreikusten lehenengoentzat, baina bai azken hauentzat.

Bestalde, EGEaren ordenantzaren espedienteetan badago ‘Irisgarritasun inpaktuaren txostena’, eta hark ondorioztatzen du EGEak eragin positiboa izanen duela eremu horretan.

Genero eragina

Proiektuan jasotako genero eraginaren azterketak soil-soilik adierazten du airearen kalitatea hobetzeak adinez nagusiagoak diren gizarte segmentuei eta hurrei egiten dienez mesede, “zeharbidez, horrek emakumeei ere mesede egiten die, gehienetan zaintzaren mugikortasunarekin haiek izaten baitira zerikusi zuzenena dutenak”.

²² Merkantiak banatzeko ibilgailuak berritzeari buruzko azterlan bat izan ezik, baina, edonola ere kasu horretan ez da kostuaren zenbatespenik egiten.

Ordenantza lantzeko espedientean, “generoaren araberako eraginari buruzko txosten” bat dago, “generoaren araberako eragina balioesteko behar adina datu ez dagoela” ondorioztatzen duena, bai eta txosten horri buruzko egiaztapen txosten bat ere, haren kontrako balioespina egiten duena. Halaz eta guztiz ere, espedientea izapidetzen jarraitu zen, horri buruzko txosten juridikoa egin ondoren.

Salgaien banaketaren eta logistikaren sektorea

Salgaien banaketaren eta logistikaren sektorea kontuan hartzen da proiektuaren zenbait alderditan, aurreikuspen hauekin:

- I. fasean EGERako xedatutako murrizketetatik salbuestea hiriko salgaien banaketako ibilgailuak, bai eta 60 urtetik gorako titularrak dituztenak ere. Onetsitako ordenantzak hein batean salbuespen horietako lehena aintzat hartzen du.
- Zamalanetarako eremuak monitorizatzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezartzea, haien kudeaketa optimizatzeko.
- Sektoreko ordezkariekin lantalde bat eratzea.

Bestalde, Udalak iragarri du merkantzien hiri banaketari buruzko azterketa bat eginen duela (“azken miliako” banaketa).

Alternatiben eta neurrien proportzionaltasunaren azterketa

Tasun kualitatiboko alternatiben azterketa bat badakar EGEPTk. Aurreikusten ditu “joerazko” agertoki bat (aurretik zegoen EGE-SKEa mantenduz, murrizketa berririk ezarri gabe), agertoki “drastiko” bat (udal-mugarte osoan murrizketa zorrotz eta berehalakoak ezarriko lituzkeena) eta “trantsizio-agertokia”, fase eta tarteko ebaluazio desberdinekin.

Proiektuak baztertu egiten du joerazko agertokia, ez baita nahikoa helburuak betetzeko. Drastikoa ere baztertu egiten du, garestiegia iruditzen zaiolako ibilgailuen txatar bihurtze goiztiarragatik, eta ezinezkoa delako, “epe laburrean behintzat”, beharrezko zerbitzu eta azpiegitura alternatibak ezartzea, garraiobideen eraldaketa beste garraiobide batzuetara eramateko.

Bestalde, proiektuak Europako 11 hiriren EGEEK deskribatzen dituzten fitxa batzuk gehitzen ditu, Iruñeko erregulaziorako erreferentziatzat hartzen ahal direnak, eta horri buruzko azterketa bat ere jasotzen du.

Ez da agertzen bestelako aukerarik aztertu denik, hala nola hirigintzako esku-hartzeak (adibidez, galtzada oinezkoentzako jartzea edo estutzea), tarifak kobratzea edo trafikoa murriztu edo berrantolatzeke beste erregulazio batzuk (adibidez, sarbide kopuruaren araberako mugak edo zirkulazioa berrantolatzea).

Neurrien proportzionaltasunaren azterketak adierazten du interes orokorreko ezinbesteko arrazoiak daudela EGEEa ezartzeko; izan ere, ez da betetzen zaratari buruzko araudia, Udalaren ‘Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia’ delakoan ezarritako emisioak murrizteko helburua, eta airearen kalitatearen adierazle batzuk OMEk gomendatutako balioetatik urrun zeuden, nahiz eta EGEPT egin zenean aplikatu beharreko Europako araudia betetzen zuten.

Garrantzia ematen dio EGEEa ezartzeko prozesuaren progresibotasunak —2028ko eta 2030eko ebaluazioen mende dagoenak— aukera emanen duela ezarritako salbuespen erregimenari buruzko eta bigarren fasearen inplementazioari buruzko erabakiak hartzeko, helburuen lorpenaren arabera.

Azterketa horiei dagokienez, kontuan izan behar dugu lehen aipatu dugun proiektuaren II. eranskinean agertzen den EGEEaren mugaketaren justifikazioa ere.

Bestelako eduki batzuk

EGEPTk zarata-mailei buruzko azterketa bat dakar, 2022an onetsitako Iruñerriko Hiri Aglomerazioko Zarataren Mapa Estrategikoan oinarrituta²³, mapa hori baita berriena. Adierazten du ibilgailuen zirkulazioak sorrarazten duen zaratak gutxi gorabehera 53.900 pertsonari eragiten diela egun-arrats-gau (L_{den})²⁴ osoan, eta 161.793ri gauean (L_n)²⁵, txosten honen 2. eranskinean zehazten dugunez.

Parte-hartzeari, komunikazioari eta EGEaren jarraipen eta berrikuspen prozedurei buruz proiektuaren dituen edukien analisia hurrengo azpiataletan aurkezten da.

Laburbilduz, orokorrean, araudiak eskatzen dituen edukiak aintzat hartzen ditu proiektuak: helburu kuantitatiboak, EGERako aurreikusitako mugaketaren justifikazioa, ezarri beharreko erregulazioaren eta kontrol eta zehapen sistemen aurreikuspena, hainbat azterketa juridiko, eragin ekonomiko eta sozialekoak, bai eta zaratari buruzko edukiak ere. Hala ere, kostuen eta onuren azterketa asimetrikoa da; izan ere, gizarte osoaren gaineko efektuak onuren kuantifikazioan soilik hartzen dira kontuan, eta ez kostuen kuantifikazioan. Hala, ez dira kontuan hartzen oso garrantzitsuak izaten ahal diren gizarte kostuak, hala nola ibilgailu parkea berritzetik edo EGEak eragindako portaera aldaketetatik eratorritzen direnak.

II.2.2 azpihelburua Prozedurek bermatzen al dute publikoaren eta diseinuan eta ezarpenean interesa duten pertsonen parte-hartzea?

Taula honetan laburbiltzen dira EGEaren diseinuan eta ezarpenean interesa duten pertsonen eta jendeak parte hartzeko prozedurak:

| Fasea | Izapidea | Datak | Parte-hartzaileak* |
|----------------------|--|------------------------------|--------------------|
| EGEPT lantzea | Aurkezpeneko eta entzuteko jardunaldi herritarra | 2022/9/20 | Ez da ageri |
| EGEPT | Informazio eta parte-hartze herritarra | 2025/06/10etik 2025/07/30era | 12 |
| Ordenantza proiektua | Jendaurreko kontsulta | 2025/07/31tik 2025/08/13ra | 10 |
| | Entzunaldia eta jendaurreko informazioa | 2025/08/27tik 2025/09/10era | 5 |
| Ordenantza | Informazio publikoa eta entzunaldia | 2025/10/7tik 2025/11/18ra | 3 |

(*) Dagokion izapidearen barruan ekarpenak, alegazioak edo kontsultak egin dituzten pertsona fisikoen edo juridikoen zenbatekoa. Badira hainbat izapidetan esku hartu duten parte-hartzaileak.

Kontuan izan behar da EGE proiektuak bere bi faseak barne hartzen dituela, eta ordenantzaren aplikazio eremua I. fasea baino ez dela.

Ekarpen, alegazio edo kontsultei buruzko txostenak aztertuta, ondorioztatzen da prozesuak Alde Zaharrean EGE ezartzearen inguruan ardaztu direla.

²³ 1219E/2022 Ebazpena, azaroaren 30ekoa, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiarena, Iruñerriko Hiri Aglomerazioaren Zarataren Mapa Estrategikoa onartzen duena, zeina 2002/49/EE Zuzentaraua, 2002ko ekainaren 25ekoa, ingurune-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa, aplikatzeko laugarren faseari dagokiona.

²⁴ Egundarrats-gaueko zarata-indizea 65 dezibeliotik gorakoa izatea (egunean eta arratsean, 7:00etatik 23:00etara, bizitegi-erabilerako eremu akustikoetarako helburua, 1367/2007 Errege Dekretuak ezarritakoa).

²⁵ Epe luzerako batez besteko soinu maila, gauean haztatuta, 55 dezibeliotik gorakoa (bizitegi-erabilerako eremu akustikoetarako helburua, 23:00etatik 7:00etara, 1367/2007 Errege Dekretuak ezarritakoa).

Proiektua lantzeko partaidetza prozesuak.

2022ko irailean, "EGEa martxan jartzeko aurkezpeneko eta entzuteko jardunaldi herritarra" egin zen. Ez da ageri parte-hartzaileen identitaterik ez kopururik. EGEPTk dioenez, bertaratu ziren "garraiolarien eta banatzaileen elkarteak eta kolektiboak", "auzotarren kolektiboak, batik bat Alde Zaharrekoak", "Alde Zaharreko merkatarien kolektiboak" eta "oro har, mugikortasun jasangarriaren kontzientzia dute herritarrak". Informazio horren arabera, parte-hartzaile batzuek kezka adierazi eta beste batzuek aurkeztutako proposamenaren alde egin zuten.

EGEPTri buruzko informazioa eta parte-hartze herritarra.

2025eko ekainaren 9an tokiko gobernu-batzarrak hasierako onespina eman ondoren, tokiko gobernu-batzarrak jendaurrean jarri zuen hura informaziorako eta parte-hartze publikorako, eta Udalaren web orrian argitaratu zen 2025eko ekainaren 10etik uztailaren 30era, EGEDk eta 27/2006 Legeak, uztailaren 18koak, ingurumen-arloan informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako sarbidea izateko eskubideak arautzen dituenak, xedatzen dutenaren arabera.

Jasotako ekarpenei buruzko txostena egin zen, eta hark dioenez, hiru kontsulta eta bederatzik ekarpen egin ziren. Tokiko gobernu-batzarrak proiektua, aldaketarik gabe, behin betiko onetsi zuen 2025eko abuztuaren 7an.

Ordenantza proiektuari buruzko kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa.

Ordenantzaren proiektuari buruzko kontsulta publikoaren izapidea 2025eko uztailaren 31tik abuztuaren 13ra egin zen, eta Udalaren webgunean iragarri zen hura. Ekarpenei buruzko txostenak dioenez, 10 ekarpen jaso ziren, eta horietako bat (zati batean bederen) "egokitza" jo zen.

Tokiko gobernu-batzarrak hasierako onarpena eman zion ordenantzaren proiektuari aldaketarik gabe, eta 2025eko abuztuaren 27tik irailaren 10era jendaurrean jarri zen entzunaldi eta informaziorako. Jasotako ekarpenei buruzko txostenak dio bostz ekarpen jaso zirela, eta "egokitza" jotzen ditu horietako lau (zati batean bederen).

2025eko irailean, tokiko gobernu-batzarrak ordenantzaren behin betiko proiektua onetsi zuen, jasotako ekarpenen ondoriozko aldaketak aintzat hartuta.

Hasiera batean onetsitako ordenantza jendaurrean jartzea eta entzunaldia.

Osoko bilkurak 2025eko urrian onetsi zuen hasiera batean EGE arautzen duen ordenantza. 2025eko urriaren 7an argitaratu zen NAO, eta jendaurrean jarri zen 30 egun baliodun, azaroaren 18an amaituko zen epealdian. Horri buruz egindako txostenak dioenez, hiru alegazio aurkeztu ziren. Ordenantzaren behin betiko onespenean horietako bat aintzat hartu zen.

Laburbilduz, EGEPTri eta ordenantzari buruzko parte-hartze, kontsulta, entzunaldi eta informazio publikoko prozedurak egin dira, legez xedatuta dagoenaren arabera. Prozedura horietan, 19 pertsona fisikok eta sei pertsona juridikok hartu dute parte. Udalak aztertu ditu haien ekarpenak eta aintzat hartu ditu horietako batzuk. Halaz eta guztiz ere, Alde Zaharrean EGEa ezartzearen inguruan ardaztu dira prozesu horiek.

II.2.3 azpihelburua. Egokia al da komunikazioa?

Herritarrekiko komunikazioari dagokionez, komunikazio, partaidetza eta sentsibilizazio plan bat proposatzen du proiektuak, "herritarrak informatzeko, sentsibilizatzeko eta inplikatzeko", hiru fase hauez osatuta:

- "Informazio eta azalpenarako" fasea. Hartarako aurreikusten zen ordenantza idatziko zela iragartzea, proposamenari buruzko informazioa ematea eta herritarren parte-hartzea biltzea, Udalaren webgunearan eta hiru dinamika parte-hartzailearen bidez. Aurreikusitako exekuzio data

ez dator bat eduki horrekin; izan ere, 2026ko lehen seihilekoan egitea aurreikusten da, EGEa onetsi eta indarrean jarri ondoren.

- Fase “betearazlea”, EGEa onetsi ondorenerako aurreikusita zegoena eta informazio bulego bat eta kanal anitzeko publizitate kanpaina bat izanen zituena.

- “Emaitzen” fasea, 2028 eta 2030erako aurreikusita dagoena. Proiektuak proposatzen du herritarren ekarpenak jasotzeko online kanal bat irekitzea, EGEaren urteko jarraipen txosten bat lantzea, emaitzak urtero eginen den “jardunaldi herritar” batean aurkeztuz, eta herritarren iritzietan oinarritutako ebaluazio prozesuak egitea, haiei buruzko xehetasun gehiagorik eman gabe.

Komunikazioaren arloan ere, seinaleztapena, web orri bat eta izaera informatiboa duen aplikazio mugikor bat aipatzen ditu proiektuak, herritarrei izapideak eta telefono bidezko arreta egitea ahalbidetuko luketenak.

EGEPTk dakarren komunikazio planak ez du behar adinako zehaztasun mailarik exekutatu ahal izateko, eta plangintza xeheagoa eskatzen duen ekintza proposamena da.

EGEa indarrean jartzearekin batera, Udalak trafiko seinaleak jarri ditu eta informazio kanpaina bat egin du 2025eko abenduan eta 2026ko urtarrilean, prentsa oharra, 75.000 liburuxka postontziratzea hiri osoan eta kanal anitzeko publizitate kanpaina bat tarteko direla.

Ez da inon ageri Udalak EGE indarrean sartu dela jakinarazi dienik ez Estatuko Administrazio Orokorriari, ez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan trafiko eta ingurumen gaietan eskumena duten sailei, EGEEDk xedatzen duenaren arabera. Alde horretatik, txosten hau egin den unean, ez dago eguneratuta Iruñeko EGEari buruzko informazioa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunean, ez eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Trafiko eta Mugikortasuneko Sarbide Nazionalako Puntuan ageri dena²⁶.

Laburbilduz, proiektuak badu komunikazio plan bat, nahiz eta hark daten arteko inkoherentziaren bat eduki, eta zehaztu egin behar den proposamen modura baino ez den formulatu. EGEa indarrean jartzearekin batera, herritarrei zuzendutako komunikazio kanpaina egokia egin du Udalak, baina ez da inon ageri EGEEDk exijitzen dituen komunikazioak beste administrazioei egin dizkienik.

Gomendatzen dugu emisio gutxiko eremuaren ezarpenaren berri ematea Estatuko Administrazio Orokorriari eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, EGEEDk xedatzen duenari jarraikiz.

II.2.4 azpihelburua. Ba al dago mekanismo egokirik EGEaren ondorioen jarraipena egiteko?

EGEren monitorizazioa eta jarraipena egiteko, alderdi teknikoari dagokionez, honako baliabide hauek aurreikusten ditu proiektuak:

- Airearen kalitatea neurtzea, lehendik dauden eta Nafarroako Airearen Kalitatearen Sarean barne hartuta dauden lau estazioen bitartez.

- Airearen kalitatea eta zarata neurtzea hamar sentsoreren bitartez.

- Banaketa modala monitorizatzea III.2.1 atalean aipatu ditugun kameren bitartez.

Gehienak EGEaren barruan izanik ere, gailu horietako batzuk EGEaren mugetan edo mugatik kanpo daude, eta hala, alboko eremuetan dituzten eraginak ere neurtzen ahalko dira.

²⁶ [Ministerioaren web-orriak](#) 2022an onetsitako SKE-EGEaren berri ematen du, eta [Trafiko eta Mugikortasuneko Sarbide Nazionalak](#) adierazten du badela “Iruña Zabalgunea” izeneko EGE bat, informazio gehiagorik eman gabe. EGEa indarrean sartu aurretik eta ondoren, 2025eko azaroaren 24an eta 2026ko martxoaren 12an, hurrenez hurren, egindako kontsultak, eta data bietan informazio bera agertzen da.

Instalatu den EGEaren kudeaketa integraleko sistemak aukera ematen du airearen kalitatearen eta zarataren jarraipena egiteko, EGEaren datuen kontrola, kudeaketa eta analisisa egiteko eta ibilgailuen eta pertsonen mugikortasuna bideo bidez aztertzeke.

EGEaren segimendua egiteko, adierazle hauek definitzen ditu proiektuak:

| EGEED kategoria | Adierazlea | Aurreikusten den datu iturria |
|---|-------------------------------|---|
| Airearen kalitatea | NO ₂ immisioak | Airearen kalitatea neurtzeko estazio ofizialen eta EGE proiektuko b berariazkoen datuak. |
| | PM _{2,5} immisioak | |
| | PM ₁₀ immisioak | |
| Klima-aldaketa eta mugikortasun jasangarria | NO ₂ emisioak | Ibilgailu pribatuen egindako bidaien matrizea eta parke zirkulatuaren datuak, ingurumen kategoriaren arabera. |
| | PM _{2,5} emisioak | |
| | CO ₂ emisioak | |
| Zarata | Banaketa modala ²⁷ | Etkez etxeko inkesta, emaria neurtzeko estazioak eta garraio publikoaren datuak. |
| | 0 emisioeko parke zirkulatuak | Matrikulak irakurtzeko kamerak. |
| Energia-efizientzia | Zarata | Zarata mapa edo zirkulazioaren modelizazioa. |
| | Trafikoa | Ibilgailu pribatuen egindako bidaien matrizea eta parke zirkulatuaren datuak, ingurumen kategoriaren arabera. |
| | Erregai kontsumoa | Simulazio ereduak eta trafiko emariaren neurketak. |

Iturria: Geuk egina EGEPTren datuetatik abiatuta.

Orokorrean, adierazle horiek EGEEDren II. eranskinean aurreikusitako artean daude, eta bat datoz EGEPTn ezarritako helburuekin.

EGEPTk adierazten du EGEPTren definizioaz eta denboran izan duen bilakaeraz arduratzen den agintaritzak Mugikortasun Zerbitzua (gaur egun Proiektu Estrategikoen eta Mugikortasunaren Arloan integratuta dagoena) dela, eta seinaleztapena, kontrola eta zehapenen kudeaketa, berriz, Herritarren Segurutasuneko Arloari dagokiola.

Proiektuak proposatzen du urteko jarraipen txostenak lantzea, eta haien jardunaldi herritar batean aurkeztea.

Halaber, EGEaren bi urtez behingo berrikuspenera²⁸ aurreikusten du, eta azterketa horretan kontuan hartzea bai txosten horiek, bai prozesu parte-hartzaileetatik eratorritako proposamenak, bai eta arlo horretako konpromiso nazionala eta nazioartekoetan jazo litezkeen aldaketak ere.

Ordenantzak alkateari esleitzen dio Alde Zaharreko EGEaren mugaketa aldatzeko ahalmena, interes publikoko arrazoiengatik, mugikortasun eta jasangarritasun arloan eskumena duen udal alorrak aldeko txostena eman ondoren. Bestalde, EGE berriak ezartzeko (edo ezarritakoa kentzeko) ahalmena osoko bilkurari esleitzen zaio, arestian aipatutako udal alorrak aldeko txostena egin ondoren eta EGEEDk eskatzen duen gutxieneko edukia izan den proiektu tekniko berria eginda.

Laburbilduz, EGEaren jarraipena egiteko eta emaitzen arabera neurriak hartzeko sistema teknikoa eta prozedurak aurreikusten ditu proiektuak.

²⁷ Joan-etorrietan erabilitako garraio bide desberdinen proportzioa.

²⁸ EGEPTk esaten du urtean biko (hau da, sei hileko), baina Udalak adierazten digu bi urtean behingo erran nahi duela.

II.3 HELBURUA: ZER BALIABIDE PARATU DIRA EGEA DISEINATU, EZARRI ETA MANTENTZEKO?

II.3.1 azpihelburua Zer baliabide erabiltzen dira EGEa diseinatu, ezarri eta mantentzeko?

Udalak eta ANIMSAk emandako informazioaren arabera, EGE diseinatu eta ezartzeko Udalak egindako gastua 1,28 milioikoa da, honako banakapen honen arabera:

| Kontratuaren xedea | Gastua | Esleipena | Amaiera |
|---|------------------|------------|------------|
| Iruñeko EGEPTren definizioa, EBk finantzatzeko SEEParen esparruan (NextGeneration EU funtsak) | 57.596 | 2022/7/22 | 2023/12/12 |
| Udalaren esleipenak guztira | 57.596 | | |
| ANIMSAren baliabide propioekin egikaritua | 51.645 | 2022/06/07 | 2023/12/31 |
| EGEaren kudeaketa integraleko sistemaren lizitazioan laguntza teknikoa ematea | 4.235 | 2022/06/22 | 2022/09/19 |
| EGEaren kudeaketa integralerako sistema baten hornidura eta instalazioa (1. lotea) | 818.158 | 2022/08/05 | 2023/10/31 |
| Udaltzaingoaren sistema ibiltarien hornidura eta instalazioa EGEa kontrolatzeko | 163.169 | 2022/09/16 | 2023/03/08 |
| EGEaren kudeaketa integraleko sistema instalatzeko proiektua kudeatzeko laguntza teknikoa | 25.047 | 2022/08/01 | 2023/03/31 |
| EGEaren datu berriak artxibatzeko beharrezkoa den biltegitratze kabina handitzeko hornidura | 75.014 | 2022/11/24 | 2022/11/24 |
| EGEa ezartzeko proiektuaren azken fasea kudeatzeko eta kontrolatzeko laguntza | 18.785 | 2023/03/21 | 2023/06/30 |
| EGE proiektuko kamerak trafikoko sarera behar bezala konektatzeko behar diren komunikazio ekipo desberdinak hornitzea | 18.039 | 2023/03/16 | 2023/05/30 |
| GEE proiektuko kameraren komunikazio ekipoak konfiguratzeko eta martxan jartzeko esku-hartzeak | 3.418 | 2023/03/16 | 2023/06/30 |
| Guztira ANIMSA – EGEaren mandatuaz | 1.177.510 | 2022/06/07 | 2023/12/31 |
| ANIMSAren baliabide propioekin egikaritua | 29.363 | - | - |
| EGEa ezartzeko proiektuaren azken fasea kudeatzeko eta kontrolatzeko laguntza | 18.785 | 2023/10/10 | 2023/12/31 |
| ANIMSA guztira – 2022 eta 2025 artean mandatu orokorrari egotzita (2025/12/19an eguneratuta) | 48.148 | | |
| Guztira | 1.283.254 | | |

Horrez gain, udal arlo batzuek giza baliabideak eta baliabide materialak bideratu dituzte proiektu horretara, batez ere mugikortasunean, herritarren segurtasunean eta herritarren parte-hartzean eskumena duten arloek.

Gastuaren % 92 Udalak ANIMSA erakunde instrumentalari 2022an egindako berariazko mandatu bati dagokio, “Europar Batasunak finantzatzeko NEXT GenerationEU SEEParen barruan EGEaren eta Iruñeko Udaleko Udaltzaingoaren sistema ibiltarien kudeaketa sistema diseinatzeko eta ezartzeko”.

Udalak ANIMSAri egindako mandatuak

Arestian aipatu dugun berariazko enkargu hori 2022ko ekainaren 7an egin zuen Udalak. Hasiera batean, 2023ko ekainean amaitzen zen haren exekuzio epea, eta 2022 eta 2023ko aurrekontu-kreditua baimendu eta xedatu zen, guztira 1,16 milioi eurokoa. Azkenik, lau aldaketaren ondoren, mandatuaren egikaritzapena 2023ko abenduan amaitu zen, eta gastua 1,18 milioikoa izan zen.

Horrez gain, ANIMSAk jakinarazi duenez, 2022an eta 2023an, EGEarekin zerikusia zuen 31.849 euroko gastuak egotzi zizkion teknologia, informazio eta komunikazio zerbitzuak emateko mandatu orokorrari.

2024tik aurrera, EGEaren kudeaketa sistemarekin zerikusia duten ANIMSAren lanak mandatu orokor horri egotzen zaizkio. 2024ko eta 2025eko gastuak 16.299 eurokoak izan dira guztira, eta baliabide propioei dagozkie oso-osorik.

EGEaren kontrol integraleko sistema bat hornitzeko eta instalatzeko kontratua (ANIMSAk esleitu)

EGEaren kudeaketa integraleko sistema bat hornitu eta instalatzeko kontratuaren lizitazioa Nafarroako Kontratazio Atarian iragarri zen 2022ko ekainaren 7an, eta urte bereko abuztuan esleitu zen kontratua²⁹. Hasiera batean, 2023ko martxoan jarri zen haren amaitze data, baina, ondoren, 2023ko ekainaren 15era arte luzatu zen epemuga. Proiektuaren itxiera txostenaren arabera, egikaritze epearen luzapen hori gertatu zen Milagrosa auzoa EGEan sartu ez zelako sistema egokitu behar izan zelako, eta zenbait kameraren kokapena aldatu beharra ekarri zuelako horrek, hasiera batean aurreikusiarekin alderatuta.

ANIMSAk kudeaketa sistema integralaren “behin-behineko harrera” egin zuen 2023ko ekainaren 15ean, eta bertan egiteke geratu ziren zenbait jarduketa. Ondoren, lanen behin betiko harrera akta sinatu zuen 2023ko urriaren 31n, eta horrek ematen dio hastapena kontratuan ezarritako bortz urteko berme epeari.

ANIMSAk 2023ko abenduan egin zuen proiektuaren itxiera txostenean adierazten zen zenbait gorabehera egiteke geratzen zirela. Besteak beste, azpimarratu behar ditugu datu babesari dagokion inpaktu ebaluazioa egitea, EGEaren kudeaketa sistemaz arduratzen den udal saila esleitzea, eta gailuen egoera monitorizatzeko sistema bat ezartzeko aukera aztertzea (alarmak igorri gailuen hutsegiteen aurrean). Txosten hau landu dugun unean, gai horiek eginkizun jarraitzen dute, EGEaren kudeaketa sistemaren gaineko ardura esleitzearena izan ezik. Horri dagokionez, alegazioen izapidean, Udalak jakinarazi du, behin-behineko txostenean gai horri buruz jasotzen zen gomendioa aintzat hartuta, ardura hori udal gerentziari³⁰ esleitu zaiola.

Kontratu horri dagokionez, adierazi behar dugu 2025ean detektatu zela bazeudela zenbait aldi daturik erregistratu gabe. Guztira, ez da daturik erregistratu 2024ko urtarriletik 2025eko uztailera bitarteko egunen % 39an. Gorabehera hori dela eta, 10.590 euroko zehapenak ezarri behar izan zaizkio kontratistari. EGEa ezarri aurreko datuen proportzio esanguratsu bat erregistratu gabe egoteak baliteke haren ondorioak ebaluatzeko egin beharreko alderaketak oztopatzea.

2025eko urrian, Udalak iragarri zuen “EGEaren mantentze lanen kontratu berri bat” esleitu zuela, “gaur egungo kudeaketa integraleko sistemaren estaldura zabaltzeko”.

Laburbilduz, EGEa diseinatu eta ezartzeko, Udalak ANIMSA erakunde instrumentalari berriazko mandatua egitera jo du batez ere, guztira 1,18 milioiren truke. Enpresa espezializatu bat ere kontratatu zuen proiektua egiteko, eta ANIMSAri mandatu orokorrerako egotzitako gastu batzuk egin zituen, 2022-2025 aldian guztira 1,28 milioi euroko gastua osatu arte. Zenbateko horretan ez da sartzen EGEa indarrean sartu ondoren, 2026an jada, egindako komunikazio kanpaina.

²⁹ Egindako lizitazioaren 1. loteari dagokio kontratu hori. 2. lotea esleitu gabe geratu zen, eta zegoen kontratua berriro lizitatu egin zen eta 2022ko irailaren 16an esleitu zen.

³⁰ Udalak aurkeztutako alegazioari erantzuna emate aldera gehitutako tartekia. Halaber, eta horren ondorioz, kendu egin da behin-behineko txostenari buruz jasotako gomendioa.

II. 3.2 azpihelburua. Dirulaguntzarik jaso al da EGEa zehaztu, ezarri eta mantentzeko?

Jasotako dirulaguntza

2021ean, Udalak bi dirulaguntza eskaera aurkeztu zituen 'Emisio gutxiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioa digitalki eta modu jasangarrian eraldatzeko laguntzen programa udalerrientzat, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barnean' (2021eko deialdian), 'Next Generation EU' funtsen bitartez finantzatu.

Eskaerak aurkeztean, deialdian eskatzen zenaren arabera, Udalak konpromisoa hartu zuen 2023an EGE bat ezartzeko. Deialdia aldatu egin zen geroago, 2023an, zehazteko konpromiso hori betetzat joko zela baldin eta EGEPT egiteko prozesua hasten bazen.

2022an, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak 6,33 milioiko dirulaguntza eman zion Udalari, eskaeretan barne hartutako 12 jarduketetatik seirentzat, honako xehetasunaren arabera:

| Jarduketa | Emandako zenbatekoa* |
|---|----------------------|
| Mugikortasun bertikala Trinitarioenean | 2.329.090 |
| Bizikletentzako sarea osatzeko ibilbideak | 1.319.727 |
| EGEari laguntzeko disuasio aparkalekuak | 924.304 |
| EGEa kudeatzeko sistemak | 914.726 |
| Oinezkoentzako pasabide seguruak | 535.537 |
| Eskola inguruneak | 307.041 |
| Guztira | 6.330.425 |

*Kasu guztietan bat dator eskatutako zenbatekoarekin.

Zenbatekoa 2022an eta 2023an kobratu zen.

Emakidaren behin betiko ebazpenak, 2022ko maiatzean ebatzi zenak, mugarri hauek ezartzen ditu, erkideak direnak sei jarduketetan:

| Mugarria | Eguna |
|---|------------|
| 1 Diruz lagundutako jardueren lizitazio prozesuak hastea | 2022/06/15 |
| 2 Dirulaguntzaren zenbatekoaren % 60 gutxienez esleitu izana* | 2022/11/30 |
| 3 Egikaritzapen materialaren amaiera eta jarduketak ordaindu izana* | 2023/12/31 |

(*) 'Mugarri kritiko' kalifikazioa duena, lehenak ez bezala, hura 'kudeaketa mugarri' baita.

Dirulaguntzaren justifikazio dokumentazioan aurkeztu beharrekoen artean daude jarduketak egiten diren bitartean sei hilean behin egin beharreko txostenak, eta jarduketak amaitzen direnetik sei hilabeteko epean aurkeztu beharreko azken txostena.

Diruz lagundutako sei jarduketetatik, 'EGEaren kudeaketa sistemak' deritzona soilik aztertu dugu, deialdiaren 34.a artikuluan jasota dagoen "EGEaren ezarpena bizkortzeko" eskatu zen bakarra hura baita.

'EGEaren kudeaketa sistemak' diruz lagundutako jarduketa

Jarduketaren helburua da EGEa ezartzeko behar den esparru juridikoa eta teknikoa eratzea, barne hartuta EGEa diseinatzeko laguntza teknikoa, sarbidea eta aparkatzea kontrolatzeko sistemak, haren funtzionamenduari buruzko datuak kudeatzeko eta aztertzekeo sistemak eta airearen kalitatea eta zarata monitorizatzeko sistemak.

Eskaerarekin batera aurkeztu zen memoria tekniko eta finantzarioan, EGEa hiru fasetan ezartzea aurreikusten zen: lehendabizikoa 2022an jarriko zen martxan, Alde Zaharra, Lehen Zabalgunea eta Bigarren Zabalgunearen "zati txiki bat" barne; bigarrena, Bigarren Zabalgune osora hedatuko zen; eta hirugarrena La Milagrosa auzora iritsiko zen.

Diruz lagundu zitekeen kostua 1.016.032 eurokoa (BEZik gabe) izan zitekeela aurreikusten zen. Emandako zenbatekoak, 914.726 euro, kostu horren % 90 estaltzen du.

Mugarriek aipatzen dituzten datetan zegoen egoerari dagokionez, honako hau adierazten dugu:

- 2022ko ekainaren 15erako, lehen erran dugun bezala, Udalak onetsia zuen ANIMSari mandatua egitea jarduketa hori 1,16 milioiren truke egin zezan, eta sozietate horrek EGEaren kudeaketa sistema integralaren hornidura eta instalazio kontratua lizitatua zuen.

- 2022ko azaroaren 30erako, ANIMSAk esleituak zituen bortz kontratu mandatua egikartzeko; guztira, 897.209 euro ziren (BEZik gabe), diruz lagundu zitekeela aurreikusitako kostuaren % 88aren baliokidea.

- 2023ko abenduaren 31rako, amaituta zegoen EGEaren kudeaketa integraleko sistema teknikoaren diseinua eta instalazioa, EGERako sarbidea eta aparkatzea kontrolatzekoa, haren funtzionamenduari buruzko datuak kudeatzeko eta aztertzeko eta airearen kalitatea eta zarata monitorizatzen. Proiektua lantzeko eta onesteko prozesua eta EGEaren araudia, aldiz, ez zeuden amaituta, eta 2025eko abenduan amaitu ziren.

2024an, Udalak ministerioari jakinarazi zion 'EGEaren kudeaketa sistemak' jarduketa 2023ko abenduaren 31n amaitu zela eta, bestalde, dirulaguntza justifikatzeko epea beste hiru hilabetez luzatzea eskatu zuen. 2024ko irailean aurkeztu zituen justifikazio frogagiriak, ministerioak emandako epe luzatuaren barruan.

Dagokigun jarduketari dagokionez, justifikazioan jasotako gastuak EGEaren kudeaketa sistema diseinatzen eta ezartzeko emandako mandatuari dagozkionak dira; guztira, 1,18 milioi euro dira (BEZa barne). Diruz laguntzen ahal den zenbatekoa, BEZik gabe, 982.112 euro da guztira, eskaeran aurreikusitakoa baino % 3 gutxiago, hain justu.

2024an eta 2025ean, aurkeztutako justifikazioari buruzko informazioa zuzentzeko eta/edo hedatzeko gutxienez lau errekerimendu jaso ditu Udalak dirulaguntza eman duen ministeriotik. Planteatutako gaien artean, EGEa egiazki ezartzeko egutegiari eta haren espazio mugaketari buruzkoak nabarmentzen dira (bereziki, La Milagrosa auzoa barne ez hartzeari dagokionez).

2025eko maiatzean, ministerioak EGEa "ezartzeko eta martxan jartzeko kronograma eguneratu zezala" eskatu zion Udalari, eta adierazi zuen bere ustez "laguntzen eskabidean eta emateko aginduan hitzemandako gutxieneko kalitate baldintzak bete behar dituela", eta, zehazki, honako hauek:

- "Laguntzen eskaeran zehaztutako esparrua eta irismena".
- EGEa arautzeko ordenantza bat edukitzea, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean ezarritako ibilgailu sailkapenari jarraikiz zirkulazioa mugatzeko, emisio mailaren arabera.
- Ibilgailuen sarbidearen kontrol eraginkorra aplikatzea, haien ingurumen etiketen arabera.

Horrez gain, gogorarazten du EGE bat ezarrita duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar duela horretarako ezarrita dagoen eredu agirian, eta dirulaguntza emateko oinarri izan ziren helburuak bete dituela, bai eta dirulaguntzaren baldintzak eta zehaztapenak ere, hartarako ezarritako epeen barruan. Halaber, adierazten du "betebehar horietako bat edo beste ez betetzea nahikoa arrazoi izanen dela kobratzeko eskubidea galtzeko edo emandako laguntza itzularazteko".

Bere erantzunean, ordenantza onartzeari buruzko aurreikuspenen berri (2025eko abendukoa) eman zuen Udalak, eta adierazi zuen sarbideak kontrolatzeko sistema 2022-2023an jarria zela jada eta 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko zela martxan. Ez da inon ageri EGE bat ezarrita daukala egiaztatzen duen eredu agiria bidali duenik.

Udalak jakinarazi digu ez duela harez geroztik gai horri buruzko inolako jakinarazpenik jaso.

Laburbilduz, EGEaren ezarpena zati batean finantzatzeko, Udalak 914.726 euroko dirulaguntza jaso zuen, 'NextGenerationEU' funtsen bidez finantzatua eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak emana, eta jarduketak egikaritzeko epea 2023ko abenduaren 31n amaitzen zen. Egun horretarako, EGEaren kudeaketa sistemaren instalazioa amaitua zen, eta hari dagokio diruz lagundutako jardueraren kostua. EGEaren araudi erregulatzaillearen onspena 2025eko abenduan amaitu da.

Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu ondoren, 2024an eta 2025ean Udalak hainbat errekerimendu jaso ditu ministeriotik, besteak beste, EGEa ezartzeko egutegiari eta haren espazio mugaketari buruzkoak. Txosten hau landu den unean, ez da ageri ministerioak baliozkotzat jo ote dituen Udalak horri buruz aurkeztu dituen justifikazioak.

1. ERANSKINA: AIREAREN KALITATEA IRUÑERRIAN³¹

| Ebaluazioa | | 102/2011 Errege Dekretuaren muga | 2024/2881 EB Zuzentarauaren muga (2030 baino lehen bete beharrekoa) | OMEren gida balioa | 2023an erregistratutako balioa ³² | 2024an erregistratutako balioa ³² | 102/2011 Errege Dekretuaren muga gainditzeen kopurua |
|--|---|--|--|---|--|--|--|
| Sufre (SO ₂) | Urtekoa | - | 20 µg/m ³ | - | 5,3 | 4,6 | 0 |
| | Egunekoa | 125 µg/m ³ , 3 gainditze/urtean. | 50 µg/m ³ , 18 gainditze/urtean. | 40 µg/m ³ , 3-4 gainditze/urtean. | Eguneko maximoa: 14 | Eguneko maximoa: 16 | 0 |
| | Ordukoa | 350 µg/m ³ , 24 gainditze/urtean. | 350 µg/m ³ , 1 gainditze/urtean. | - | Orduko maximoa: 66 | Orduko maximoa: 35 | 0 |
| Nitrogeno oxidoa (NO ₂) | Urtekoa | 40 µg/m ³ | 20 µg/m ³ | 10 µg/m ³ | 31 | 28 | DG |
| | Egunekoa | - | 50 µg/m ³ , 18 gainditze/urtean. | 25 µg/m ³ , 3-4 gainditze/urtean. | DG | DG | DG |
| | Ordukoa | 200 µg/m ³ , 18 gainditze/urtean. | 200 µg/m ³ , 3 gainditze/urtean. | 200 µg/m ³ | 161 | 178 | 0 |
| Karbono monoxidoa (CO) | Zortzi orduko batez besteko eguneko maximoa | 10 mg/m ³ | 10 mg/m ³ | 10 mg/m ³ | 1,3 | 1,4 | 0 |
| | Egunekoa | - | 4 mg/m ³ , 18 gainditze/urtean. | 4 mg/m ³ | DG | DG | DG |
| PM _{2,5} | Urtekoa | 25 µg/m ³ | 10 µg/m ³ | 5 µg/m ³ | 14 | 12 | 0 |
| | Egunekoa | - | 25 µg/m ³ , 18 gainditze/urtean. | 15 µg/m ³ , 3-4 gainditze/urtean. | DG | DG | DG |
| PM ₁₀ | Urtekoa | 40 µg/m ³ | 20 µg/m ³ | 15 µg/m ³ | 14 | 17 | 0 |
| | Egunekoa | 50 µg/m ³ , 35 gainditze/urtean. | 45 µg/m ³ , 18 gainditze/urtean. | 45 µg/m ³ , 3-4 gainditze/urtean. | DG | DG | 1 |
| Bentzenoa (C ₆ H ₆) | Urtekoa | 5 µg/m ³ | 3,4 µg/m ³ | - | 0,35 | 0,40 | 0 |
| Ozonoa (O ₃) | Giza osasunaren babesa: Zortzi orduko batezbestekoa | 120 µg/m ³ , 25 gainditze, eguneko maximoen hirurteko batez besteko gisa. | 120 µg/m ³ , 18 gainditze, eguneko maximoen hirurteko batez besteko gisa. | 100 µg/m ³ , 3-4 gainditze/urtean. | 100 µg/m ³ | 100 µg/m ³ | 0 |
| | | Epe luzera: 120 µg/m ³ (urteko maximoa) | Epe luzera: 100 µg/m ³ (eguneko maximoen 99 pertzentila) | - | | | 0 |
| | Landarediaren babesa: AOT40 ³³ | 18.000 µgr/m ³ -h, 25 gainditze, bortz urteko batez besteko gisa. | 18.000 µgr/m ³ -h, 25 gainditze, bortz urteko batez besteko gisa. | - | DG | DG | DG |
| | | Epe luzera: 6.000 µgr/m ³ -h | Epe luzera: 6.000 µgr/m ³ -h | - | DG | DG | DG |

102/2011 Errege Dekretuaren eta EB 2024/2881 Zuzentarauaren mugak betetzen ditu

102/2011 Errege Dekretuaren mugak betetzen ditu, baina ez EB 2024/2881 Zuzentarauarenak

³¹ Geuk egina, soil-soilik Nafarroako airearen kalitateari buruz 2023an eta 2024an Nafarroako Gobernu Landa Garapeneke eta Ingurumeneke Departamentuak emandako txostenetatik abiatuta.

³² Aldagaia hainbat estazioetan neurtzen bada, daturik txarrena erregistratzen duenari dagokion balioa adierazten da.

³³ Denbora tarte batean 80 µg/m³ baino gehiagoko orduko kontzentrazioen arteko diferentziaren batura, 8:00etatik 20:00etara (Europa erdialdeko ordua) bitartean neurtutako orduko balioak bakarrik erabiliz.

Datu horien arabera, orokorrean, 102/2011 Errege Dekretuak eta EB 2024/2881 Zuzentarauak ezarritako mugak betetzen dira. Nitrogeno dioxidoaren (NO₂) eta PM_{2,5} Partikula esekien kasuan, agertzen diren urteko balioek errege dekretuaren mugak betetzen dituzte, baina ez zuzentarauarenak

Metal astunei –arsenikoari, kadmioari, nikelari eta berunari– dagokienez, airearen kalitateari buruzko txostenek adierazten dute erregistratutako balioak “oso txikiak direla, eta kontzentrazioak, askotan, kuantifikazio mugaren azpitik daudela”. Argi eta garbi, arestian aipatutako errege dekretuan ezarritako mugen azpitik daude.

2. ERANSKINA: IRUÑEKO ZARATA MAPAK

Kalitate akustikoko helburuak

Taula honetan, nazio mailako araudiak³⁴ ezarritako kalitate akustikoko helburuak agertzen dira, eremu bakoitzeko lurzoruaren erabilera nagusiaren arabera:

| Eremu akustikoaren mota (lurzoruaren erabilera nagusia) | Egunean (7etatik 19etara): Ld | Arratsean (19etatik 23etara): Le | Gauean (23etatik 7etara): Ln |
|---|---|----------------------------------|------------------------------|
| Kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar duen osasuneko, irakaskuntzako eta kulturako | 60 | 60 | 50 |
| Bizitegikoa | 65 | 65 | 55 |
| Hirugarren sektorekoa, aisialdi eta ikuskizun erabileraz bestelakoa | 70 | 70 | 65 |
| Aisialdikoa eta ikuskizunetako | 73 | 73 | 63 |
| Industrialak | 75 | 75 | 65 |
| Garraio azpiegituren sistema orokorrak edo halakoa behar duten beste ekipamendu publiko batzuk | Sektorearen perimetroko muga ez da gainditu behar inguruko eremu akustikoaren kalitate akustikoko helburua. | | |

Zarataren eragina Iruñerriko hiri aglomerazioan³⁵:

| Egunean, arratsean eta gauean batez besteko zarata maila desberdinen eraginpean dauden pertsonen kopurua | | | | | |
|--|----------|----------|----------|----------|---------|
| | 55-60 dB | 60-65 dB | 65-70 dB | 70-75 dB | ≥ 75 dB |
| Ibilgailuen trafikoa | 104.100 | 119.815 | 48.959 | 4.873 | 0 |
| Trenen trafikoa | 2.670 | 1.949 | 91 | 0 | 0 |
| Aireko trafikoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Industria | 1.611 | 152 | 0 | 0 | 0 |
| Zarata guztira | 104.165 | 121.618 | 50.618 | 5.254 | 2 |

| Gauean batez besteko zarata maila desberdinen eraginpean dauden pertsonen kopurua | | | | | |
|---|----------|----------|----------|----------|---------|
| | 50-55 dB | 55-60 dB | 60-65 dB | 65-70 dB | ≥ 70 dB |
| Ibilgailuen trafikoa | 117.962 | 41.004 | 2.827 | 0 | 0 |
| Trenen trafikoa | 2.553 | 1.160 | 0 | 0 | 0 |
| Aireko trafikoa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Industria | 1.207 | 72 | 0 | 0 | 0 |
| Zarata guztira | 120.487 | 44.759 | 3.179 | 0 | 0 |

³⁴ 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratar buruzkoa, garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.


³⁵ Iurria: 'Iruñerriko hiri aglomerazioaren zarataren aurkako ekintza planak 2024-2029 (4. fasea)'.

Zarataren eragin geografikoa³⁶

Hurrengo mapek erakusten dituzte Iruñean erregistratutako zarata mailak. Eguneko, arratseko eta gaueko aldian (L_{den})



Gaueko aldia (L_n)




³⁶ Iturria: EGEaren proiektu teknikoa, 2025eko ekainaren 9an onetsia.


Bateraezintasun akustikoko eremuak Iruñean³⁷

Mapa hauetan, bateraezintasun akustikoko eremuak adierazten dira, hau da, zarata mailak kalitate akustikoko helburuak baino handiagoak dituztenak, erabilera nagusiaren arabera koloreztatuta.

Egunean



Gauean



³⁷ Iturria: <https://www.navarra.es/eu/ingurumena/zarata> (2025eko urriaren 8an kontsultatua).

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

ALEGAZIO IDAZKIA

Kontuen Ganberako presidentearen Ebazpenaren bitartez onetsi da Iruñeko emisio gutxiko eremuari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena (2022-2025), eta horri dagokionez, Iruñeko Udalak honako alegazio hau egin behar du:

EGEaren kudeaketa integraleko sistema informatikoaz arduratu behar duen udaleko administrazio organoa edo unitatea zehaztea gomendatzen dugu esaten duenean, Kontuen Ganberari jakinarazi behar zaio, egindako gomendioaren ondorioz, Iruñeko Udaleko Gerentzia arloa izendatu dela EGEaren kudeaketa integraleko sistema informatikoaren unitate arduradun, hain zuzen ere plantilla organikoan jasota dagoen sistema informatikoen arduradunaren figura arlo horri atxikita baitago.

Hori guztia jakinarazten dizut alegazio hau kontuan hartu eta fiskalizazio txostenean aintzat har dadin.

Iruñean, 2026ko martxoaren 31n

Jose Francisco Iraizoz Aguerri
Udal gerentea / Gerente municipal

**KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO
ALEGAZIOAK DIRELA-ETA**

Eskertzen dugu Iruñeko Udaleko gerenteak 2026ko martxoaren 25ean aurkeztu zuen alegazioa.

Alegazio horretan, jakinarazi du udalak behin-behineko txostenean jasotako “EGEaren kudeaketa integraleko sistema informatikoaz arduratzen den udaleko administrazio organoa edo unitatea zehaztu dezan” gomendioa aintzat hartu duela.

Ondorioz, txostenaren II.3.1 azpiatala aldatu egin dugu, udalak emandako informazioa gehituz eta dagokion gomendioa bertan behera utziz.

Aurkeztutako alegazioa behin betiko txostenari erantsi zaio.

Iruñean, 2026ko martxoaren 31n

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

